



GALDUTAKO TRENA

1988an itxi zituen atea behin betiko Urolako Trenak. Itxiera hura gogoratu du hainbat lagunek Uztarriarekin 20

10
IURTEI
OSPATZEN
DITUGU

**HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.**

Jose Arlotxe kalea, 5.
Gaztelaztete udazkia 20730 Azpeitia

INNOVA
HORTZ KLINIKA

943 025 955

AP3 nº1 2012.3.17.885

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU AUKERA ZABALA
- SMART RETAIL PANTAILA BITARTEZKO EROSKETA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIRZIKLATZE GESTIO INTEGRALA
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus ON LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etzetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrena!

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea



Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 209.a (2018ko urria)
Urtea. XIX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileru
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Euskotren
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza
 Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako
 Sailburuordetzak) diruz
 lagundua

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2018KO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||||



iritzia

Inkesta. Erosketa poltsak erabiltzen al dituzu? **13.**
mamia
Elkarrizketa. Jon Alberdik egin du debuta profesionaletan **04**
Klik! Urte oparoa izan da herrian ikus-entzunezko lanen ekoizpenari dagokionez **16**
Plazara, dantzara. Larraitz Larrañaga eta Amets Amubieta dantzariak puntan dabiltz dantza txapelketetan **26**
jakiteko
Bestaldetik. Beatriz Aranbarri liburuzaina ezagutzen **34**

Ba al dakizu urtea bukatzerako egingo duela udalak babes ofizialeko eta udal sustapeneko etxeen zozketa? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

JON ALBERDI

pilotaria

“Beti gogoratuko dut debutean sentitutakoa”

Asegarcerekin bi urterako kontratua sinatu berri du Jon Alberdik. Profesionaletako lehen partida jokatuta, egoera berrira egokitzea du helburu. 📝📺 **Ihintza Elustondo**

Profesionaletan debuta egin berri, momentu gozoa bizitzen ari da Jon Alberdi. Ez du gogoan noiz eman zion pilotari lehen kolpea, baina oroitzen da 2-3 urterekin nola bilakatzen zituen etxeko paretak pilotaleku. Umea zela amesten zuen pilotari horien ondoan jokatzerira iritsi da orain Arauntzako mutikoa. **Irailaren 28an egin zenuen profesionaletarako jauzia. Nola oroitzen duzu egun hura?**

Egun polita izan zen. Frontoia bete egin zen, eta giro ederra nagusitu zen: jendea oihuka entzuten nuen, denak animatzen... Beti gogoratuko dut debutean sentitutakoa.

Jon Ander Albisurekin aritu

zinen, Oinatz Bengoetxearen eta Alvaro Untoriaren aurka. 22 eta 19 galdu zenuen partida. Zer balorazio egiten duzu?

Ona. Iruditzen zait nahikoa txukun jokatu nuela. Zati batzuetan ondo aritu nintzen, eta beste batzuetan pixka bat baxuago, baina hori baino garrantzitsuagoa da han zegoen giroa, eta horrekin gelditzen naiz. Sekulako berotasuna sentitu nuen: kuadrillakoak han zeuden, pilotari asko joan ziren ikustera, lau edo bost pankarta ere bazeuden... Etxeko pasilloan bezala sentitu nintzen.

Jokaldi polit batzuk egin zenituen...

Bai, batzuk atera zitzaizkidan. Horrelako batzuk egin beharra zego-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1999ko abuztuak 16.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Pilotaria.

en, bestela Bengoetxeak berak egingo zizkigun eta.

Beste pilotariek zer moduko harrera egin zizuten?

Aldageletan-eta aurrez egondakoa nintzen beraiekin, eta alde horretatik, nahikoa ondo. Broma batzuk-eta egin zizkidaten...

Uduri egon al zinen?

Uste nuen urduriago egongo nintzela, baina nahikoa ondo eraman nuen. Horretan ikasi dut. Lehen okerrago eramaten nuen; umea nintzela, galtzen banuen, sekulako kasketak izaten nituen. Orain berehala pasatzen zait.

Min ere hartu zenuen.

Bai, zaintiratu txiki bat egin nuen

hokatilan, baina ez da ezer larria, eta berehala itzuliko naiz normaltasunera.

Partida amaitzean, herrian zegoen giroa ikusita, parrandarik egin al zenuen?

Ez, etxera joan nintzen. Lagunek uste dut festarekin kalean jarraitu zutela, baina ni etxera joan nintzen. Etxera iritsi nintzanean, gure partida ari ziren ematen telebistan, eta horixe ikusi nuen.

Zer sentipen izan zenuen partida ikustean?

Gutxi gorabehera, frontoian sentitu nuen antzekoa. Espero nuen horixe ikusi nuen telebistan.

Ospatu al zenuen debuta?

Hurrengo egunean, lagunekin bazkaria egin nuen, eta parranda pixka bat ere bai.



Jon Alberdi Izarraitz pilotalekuan.

Asegarcerekin bi urterako kontratua sinatu berri duzu. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Duela urte eta erditik beraiekin entrenatzen ari nintzen, baina ezin duzu jakin inoiz aukera hori iritsiko ote zaizun. Niri iritsi zait, eta ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatuko naiz. Onenekin jokatzerira iritsi naiz, eta haien egoerara moldatzen ikasi beharko dut.

Zaila izango al da?

Bai, maila handia dago eta. Asegarceko aurrelari denek, gutxienez, bi urte daramatzate profesionaletan, eta, hasieran, haien egoerara egokitzea pixka bat kostatu egingo zaidala iruditzen zait. Baina ahal den azkarren moldatzen saiatuko naiz.

Zer helburu dituzu hastear duzun etapa berrirako?

Hasieran, ez dut helbururik jarriko. Maila horretara ahalik eta ondoen moldatzea da nire nahia, eta

ea urte batzuetan hor segitzeko aukera dudan.

Debuta berri pozgarria da, baina horrek ez du esan nahi dena ondo joango denik. Erroka berri honek beldurrik sortzen al dizu?

Iruditzen zait hasiera garrantzitsua izan daitekeela. Hasieran partida batzuk irabazten baldin baditut, konfiantza handiagoa izango dut neure buruarengan. Baina partidak irabazi ezinda hasten banaiz, pixka bat kostatuko zait. Etapa berri hau ondo hastea garrantzitsua izango da.

2017ko urrian hasi zinen Asegarcerekin entrenatzen. Nolakoak izan da orain arteko prozesua?

Aurrez entrenamendu batzuk egin nituen Asegarcerekin, eta gero, aurre kontratu bat sinatu nuen. Entrenamenduetan nahikoa ondo moldatu nintzen; ikusten zen pixkanaka-pixkanaka ari

nintzela hobetzen, eta orain aukera iritsi zait.

Anaia Unai ere zurekin aritu da entrenatzen.

Hark gutxi entrenatu du nirekin, Azpeitian egin ditu entrenamendu gehienak, baina hark ere aurre kontratu hori sinatuta du.

Biok pilota munduan murgilduta zabilzate. Harreman berezia al duzue?

Bai. Oraindik ez zaigu inoiz elkarren kontra jokatzea tokatu, eta eskerrak! Bestela, galtzen duenak bestea aguantatu beharko du pixka batean [barreak].

Etxetik al datorkizue afizioa?

Bai, aita ibili zen pilotan 20 urtera arte edo, baina ez zuen izugarriko afiziorik. Bi anaioi, berriz, txikitatik gustatzen zaigu pilota.

Gustatuko al litzaizuke anaia zu iritsi zaren leku berean ikustea?

Bai, etxeko beste bat profesiona-

letara iristea ederra izango litzateke. Baina ahal dela, nik irabaztekoan, e! [barreak].

Umea zinela hasi zinen pilotan. Nola oroitzen dituzu garai haiek?

5 urterekin hasi nintzen Ilunpen. Adin horrekin zaharragoen taldean hastea tokatzen zitzaidan, eta esan zidaten hurrengo urtean apuntatzeko. Urte hartan bertan apuntatu nintzen, partidak galtzen banituen, hurrengo urtean irabaziko nituela pentsatuta. Lehen urtean txapela atera nuen, eta horrek jarraitzeko poza eman zidan.

Nolakoak izan ziren hurrengo urteak?

Hasieran, ez ginen asko ateratzen Azpeititik, baina behin Lizarrako txapelketa jokatzerira joan nintzen, eta finala galdu egin nuen. Han nahikoa ondo ibili nintzela ikusita, beste txapelketa batzuetara gonbidatu ninduten.

Pixkanaka, zer txapelketa zeuden ezagutu nuen, eta horrela hasi nintzen bidea egiten. Gero, afizionatuetan hasi nintzen, eta horrela egin ditut azken urteak.

Zenbat Herriarteko Txapelketa irabazi dituzu?

Gipuzkoako lau final jokatu eta laurak irabazi ditut, eta hiru Euskal Herriko txapel ere bai; Euskal Herriko final bat galdu egin genuen.

Zer esan nahi dute txapel horiek zuretzat?

Herriarteko Txapelketa oso ederra da. Kanporaketetan jende pila bat elkartzan da, eta sekulako giroa egoten da. Beti beteta egoten da frontoia, eta herritarren berotasuna sentitzen da. Kariño berezia diot txapelketa horri.

Aurrerantzean ezingo duzu bertan parte hartu...

Ez, beste batzuek jokatu beharko dute nire orde. Baina badaude lekuko hartzeko pilotariak: Iriarte, Egiguren, Apezetxea... Nik jokatu ez arren, beti joango naiz partidak ikustera.

Erraza izan al da zauden lekura iritsi arteko bidea?

Haserrealdi eta buruko min asko eman dizkit pilotak, partida galdu eta etxera burumakur joandako egunak ere bai... Baina une politak ere bizi izan ditut, bestela ez nintzatekeen nagoen lekuan egongo.

Txikitan atzelaria zinen.

“etapa berri hau ondo hastea garrantzitsua izango da”

“buruko min asko eman dizkit pilotak, baina une politak ere bai”

Zergatik aldatu zinen aurrea?

Duela lau urtera arte-edo atzean jokatzen nuen. Lau eta erdian nahikoa ondo moldatzen nintzen, eta aurrean probatzeko erabakia hartu genuen. Aldaketak merezi izan zuela dirudi; momentuz, behintzat, ez naiz damutu.

Pilotan ezkerria zara, baina sakea eskuinez egiten duzu. Ez al da bitxi samarra?

Bai, pixka bat arraroa da. Jan eta idatzi eskuinarekin egiten dut, baina gainontzeko dena ezkerrekin. Pilotan ere ezkerria naiz, eta sakea lehen ezkerrekin egiten banuen ere, aspaldi hasi nintzen eskuinarekin ateratzen. Dena den, oraindik ere antzematen dut ezkerrekin errazago moldatzen naizela; izan ere, berez, ezker-ezkerria naiz.

Zerbait ari al zara ikasten?



Alberdi Bengoetxearekin; haren kontra jokatu zuen debuteko partida.

Bai, Robotika Industrialeko goi mailako zikloa, Eibarren. Aurten ez dakit ikasturte osoa gainditzerik izango dudana, entrenamenduak direla eta. Baina zikloa amaitzeko asmoa badut.

Kepa Peñagarikano izan zen profesionaletan debuta egin zuen azken azpeitiar pilotaria. Zer sentiarazten dizu izen horrek?

Hark profesionaletan urte dezentetik eman zituen, eta ibilbide ederra bezain garrantzitsua egin

zuen. Haren adinako bidea egitea zaila izango da, baina ea zertara iristen naizen.

Erreferenterik baduzu?

Asko. Bengoetxea, Aimar, Irujo, Barriola... Txikitan telebistan ikusten nituen, eta horiek denak erreferenteak izan dira niretzat.

Bide berri honetan, zein da zure ametsa?

Momentuz, ez naiz ametsik egiteko gai ikusten. Nahiago dut pixkanaka-pixkanaka joan, eta ea noraino iristen naizen.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Aberriaño poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago aztoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumaiola

San Juan, 16 edif. AXBU
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Cesolaga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Non dira gure herrikoloreak?

Irailaren 15ean gustura ibili nintzen Azkoitian, azkoitiarrek txukun eta mimoz antolatutako Herrikoloreak egitasmoarekin. Gustura, azokaz, dinamikaz, kontzertuez, tour turistikoaz, eskulan azokaz, eskalataileak parrokiako kanpandorrearen puntara igotzen ikusteaz eta giro apartaz gozazten. Bai horixe, bejondeizuela!

Gustura ibili nintzen, eta sare sozialen bitartez, hala adierazi diet egunaren antolatzaileei: "Heldua nahiz umea izan, herrikoa ala kanpokoia izan, herrikolore bat gehiago sentiarazi nautelako eta naizelako".

Goizean goiz bizikleta hartu eta Azkoitira joan nintzen, tour turistikoan parte hartzeko asmoz. Parrokia aurrean, esku-orrian adierazita bezala 11:00ak inguruan, Juan Bautista gidari izan genuen bere mikrofono txiki eta aterki dotore eta guzti! Pixkanaka, berrogeitaka lagunekin elkartu ginen, haren ezustera. Aukera paregabea izan genuen denok, bertatik bertara eta umore onean, Azkoitiko herriaren berri modu interesgarrian eta dibertigarrian jasotzeko. Irribarrerik ez zen falta izan, historiaren eta pasartearen olatuan mendez mende eraman gintuen, banan-banan eta denok batera. Balda jauregian amaitu genuen tourra, eta txalo zaparrada ozenez eskertu genuen emandako aukera.

Eguraldia eta giroa lagun, Plaza Berritik gora, tabernara sartu eta pintxo bat eta garagardo bat jan-edanez eman nion amaiera pertsonala tourrari. Bizikleta hartu eta nire herrira itzuli nintzen. Etxekoei zuzenean lehenengo, eta lagunei ondoren telefonoz, lata ematen hasi nintzen: Azkoitiak eskaintzen zuten aukera ezin zutela galdu, eta ipurdia mugitzeko esan nien.

Horrela, bada, arratsaldean lagunekin eta etxeko txikienekin itzuli nintzen Azkoitira. Bartzuek zirko tailerrean parte hartzen zuten bitartean, besteok herrian buelta bat eman eta sormen tailerraren irekiera festan sartu ginen. Bata zein bestea amaitu ondoren, he-



||||||| **olatz aguado** |||||

||| **Eredua badugu eta ez dago aitzakientzat lekurik, osatu dezagun guk ere gure lore sorta**

rriko plazan elkartu ginen garagardo baten bueltan. Kontzertuak entzuten ari ginela, zer ikusiko, eta kanpandorra eskalatzen ari zen lagun bat... Hura zirrara! Plazako doinuen erritmoan luzatu nizkion besoak kanpandorra konkistatu berri zuen eskalataileari, gailurra ospatzeko! Bua, hura bai "momentu itxela"!

Nire herriari so

Iluntzean zela itzuli ginen etxera, neke gustagarri bat itsatsita gorputzean, amets gozo bat izan bagenu bezala. Zorionak eta bejondeizuela, Herrikoloreak egi izan zedin lan ikaragarri txukuna egin duzuen guztioi. Eta noski, zuek ondo esan bezala, eskerrak azkoitiarrei, emandako babes eta esker onagatik. Koloreengatik!

Nire herriari begiratu nion hurrengo egunean, eta nahigabe edo nahita, bi herriak alderatzen nintzen. Eta hauxe galdetzen nion eta diot nire buruari: non dira nire herriko koloreak? Non dira herriari opa beharko genizkiokeen elkarlana, borondatezko jarrera eta ilusioa?

Eredua badugu, eta ez dago aitzakientzat lekurik. Osa dezagun guk ere gure lore sorta, koloreak eta loreak ez baitira falta gurean ere!*



Harriak eta gu

Ez dakit hau zehazki zer den, baina ez da publie-reportaje bat. Orduak ematen ditugu gora begira, konstelazioen arteko lotura bestelakoa balitz, gure harremana sanoagoa litzatekeela ebazten bukatzeko. Non gauden ahazteraino aireratzen zaigu gogoia. Kontrakoa da gaurko ariketa. Egunerokotasunean aritu naiz aztarrika, zure eta nire arteko eremu lohitan. Lubakiak eta zubiak ikusten ditut.

Motxila bete harri dakarkit zaman eta harri bakoitzean gomuta bat grabatu dut zuri erakusteko. Pisatu egiten didate harriek. Ez diote haatik nireak izateari uzten; bidean bildu ditut eta ez ditut motxilatik atera nahi. Pisuak ere lotzen nau lurrera.

Begira, lehenengo hau haurrak ginela Etxe-Alaiko parkean lau lagun artean inguratu eta begia moratu zenidatenekoa da. Gurasoei zerbait esatera, beste begiak ere patu bera zukeelako isildu nuen jazo zena.

Honek ere badu bere historia. Tabernako ilunpetan nire loredun soinekoa altxatu zenidan, eta burua jiratu gero. Badakit zuk ere gogoan duzula, koldarra.

Beste hau ia ahaztuta neukan. Gaupasa egun batez, kiosko azpiko komunetan larrua jo genuenekoa da. Ezagutu ditut leku txukunagoak, baita maitale hobeak ere.

Erronbo itxurako hau gure zaurien lekukotza da. Zure etorrera kopak sabairantz jasota ospatu genuen; ardo beltz ona kalizetan. Auzoko batek odola ospatzen aritu izana egotzi zidan kafetegian. Gaur ez nago eztabaida moraletarako. Topa eta zurrup eta klik eta txartela gorde.

Harri honetan, haurdun nengoela, lanetik azalpenik eman gabe bidali ninduzula jartzen du. Beste honetan, berriz, etxepean pintada bat egin nizula hurrengo goizean.

Zita

Afera asko dira, edozeinenak izan daitezkeenak eta ez denak zapore gozokoak. Plaza



Jon Gurrutxaga

Bi hilean behin plaza honetan elkartuko gara elkarri benetan pentsatzen ditugun kontuak esateko.

berri zoragarri honetan irribarre perfektu asko sumatzen da aspaldion poteoko orduan. Halere, berdejo fin honek ez dezake porlanik jardindu. Ondotxo dakigu, zeinekin norarte eta zurekin honarte dela.

Jende maitagarria eta atormentatua gara –zereginik ez daukagunean, bigarrena batez ere–. Intentzio txarrik gabeko jende inbidiatsua. Halako auzotako halako etxetakoa gara, halako eta halakoren seme-alabak. Honek berezi egiten gaitu ezinbestean, onerako zein txarrerako. Bertako egiten gaitu, erroak damaizkigu gero eta iragankorrakoa den munduan.

Bizikidetzaren kontzeptu irristakorra da eskuz esku dabilenetik. Elkarren ondoan bizi garela da hemen egia berdaderoa. Gertutasunak aleazioa dakar, etengabeko diglosia humanoa. Barra-ertz berdinetan galdu ditugu lotsa eta duintasuna, ohe berdinetan maitatu zein ahaztu dugu elkar. Hementxe bizi gara, maitasuna eta ezinikusia egunero gurutzatzen diren lapiko azkarrean.

Tratu bat proposatzen dizut. Bi hilean behin plaza honetan elkartuko gara elkarri benetan pentsatzen ditugun kontuak esateko. Gu bakar-bakarrik, bitartekaririk gabe. Ez dizut Whatsappik erantzungo, eta isiltasuna ezezko bezala ulertuko dut. Saiatuko naiz fidela izaten.✳



“Esnaola saltokian teknologia berria ari gara txertatzen”

Esnaola Tien 21 saltokia goitik behera berritu dute. Askotariko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte bertan. Anuska Esnaolak eman ditu azalpenak.

Zer aldaketa egin dituzue?

Etortzen den edonork nabarituko ditu aldaketak. Aurten, 47 urte beteko dira Esnaola denda zabaldu zenetik. Guk herrietako merkataritza txikia bultzatu dugu beti, eta Bertan merkatarik elkartean sinesten dugu. Gure dendara etortzen diren guztiek arreta pertsonalizatua jasotzen dute, eta momentuan ezin badiegu lagundu, telefona eskaini eta gaiari buruzko edozein argibide ematen dizkiegu. Bestalde, elektrizitateari dagozkion zerbitzuak eskaintzen ditugu, eta ezinbestekoa deritzogu energia efizientzia bultzatzea. Horrez gain, Tien 21 katean sartu gara, merkaturatu lehiakorrik izateko, baina, hala ere, familiako enpresa izaten jarraitzen du Esnaolak. Belaunaldi aldaketak izan dira gure dendan, baina zerbitzu berberak ematen eta arreta pertsonalizatua eskaintzen jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere.

Zer saltzen duzue dendan?

Elektrizitatearekin lotutako aukera eta gama guztiak saltzen ditugu: gama marroia deritzona (telebistak, musika-kateak...), gama zuria (garbigailuak, ile-lehorgailuak, ontzi-lehorgailuak...), PAE edo etxetresna elektriko txikiak (zukungailuak, kafe-

makinak, plantxak, xurgagailuak...). Aurten, gainera, berrikuntza bat sartu dugu: telefoniarri dagozkion gailuak, hala nola telefono mugikorrak, tabletak, ordenagailu eramangarriak, USBak eta abar. Horrez gain, pilak eta argiteria sekzio osoa dugu salgai: bonbillak, lanparak, dekoraziorako materiala...

Zer azpimarratuko zenuke?

Orain, Iberdrolak argi-kontagailuak jarri ditu, eta bezero askori etxeko argindarra joaten zaie. Guk bezero horiei argi instalazioa berritzen eta tramitazioak egiten dizkiegu. Izan ere, tarifa zaharra dutenek muga bat izaten dute argi-kontagailuan, eta gaitzaren eraginez, indarra galtzen du gailuak. Lehengo argi-kontagailuek karga hori gaitzitzen bazuten, orokorrean, ez zen arazorik izaten.

Norengana iritsi nahi duzue?

Merkataritza txikia bultzatzen dugunez, herrian egin nahi dugu lan. Saltokian teknologia berria ari gara txertatzen; esaterako, ukipen-pantaila duen ordenagailua dago sarreran, eta edonork ibil daiteke horrekin saltsan, dendan daukagun materiala eta bertara ekarri dezakeguna ikus baitezake bertan. Beraz, gure denda askotariko bezeroentzat dago prestatuta; material aukera zabalago jarri dugu ikusi eta erosi ahal izateko. Betiko erosteko modua nahiago dutenei, berriz, ldoiak laguntzen die dendan.

Internetez ere saltzen al duzue?

Oraingoan, ez dugu Internetez saltzen, baina ez dugu baztertzeko epe motzean *on line* saltzen hastea. Sare sozialei dagokierenez, Facebooken eta Instagramen iragartzen ditugu material berriak eta eskaintza bereziak.

Zeintzuk dira zuen balio nagusiak?

Zerbitzu osoa eman nahi dugu: materiala saltzen dugu eta instalazioak eta konponketak egiten ditugu. Momentuz, saltokiko langileok saldu eta instalatu egiten ditugu, eta konponketak egin behar ditugunean, marka ofizialekin jartzen gara harremanetan. Gero, haiek joaten dira bezeroen etxetara, baina epe motzean zerbitzu hori ere geuk eskaintzeko asmoa daukagu. Gainera, saltokiarekin batera, tailerra ere badaukagu. Beraz, zerbitzu elektrikoak egiteko langile kualifikatuak ditugu ondoan.


Beste zerbaite nabarmendu nahiko al zenuke?

Eskerrak eman nahi dizkiogu gure izeba Mari Carmen eta Lourdesi, urte hauetan guztietan dendan eta dendaren alde egin duten lan guztiagatik.



||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||

Egin bat Euskaraldiarekin

Interneten ez ezik, herriko hainbat gunetan eman ahal izango da Euskaraldia egitasmoan parte hartzeko izena. Azpeitiko batzordeak mahaiak jarriko ditu herriko hainbat gunetan.  Julene Frantzesena

Dagoeneko zabalik da Euskaraldian izena emateko epea. Euskaraldia egitasmoa azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean izango da, eta ariketa nazional horren helburuak dira hizkuntz ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera areagotzea, hau da, euskaraz hitz egiten edo ulertzen duten guztiak euskaraz aritzea 11 egun horietan.

Bi rolen artean aukeratu ahal izango dute herritarrek: Ahobizi eta Belarriprest. Ahobizi hautatzen dutenek 11 egunetan euskaraz egingo diete euskara ulertzeko gai diren solaskide guztiei. Ezezagunei, berriz, lehen hitzak euskaraz egingo dizkiete, eta horiek euskara ulertzen badute, hurrengoak ere bai. Belarriprestek, berriz, 11 egunetan euskal hiztun

guztiei beraiei euskaraz egiteko eskatuko diete egunero.

Dagoeneko eman daiteke egitasmorako izena *izenematea.euskaraldia.eus* webgunean. Behin izena emanda, batzordeko kideak jarriko dira harremanetan herritarrekin, txapak banatzeko. Azpeitiko Euskaraldiko batzordeko kideek ere zabalduko dute izen-ematea. Hain zuzen ere, mahaiak jarriko dituzte hainbat egunetan eta hainbat gunetan, hala nola Txisteratik Egund Magikoan, garardo azokan nahiz Ardo Egunean. Herriko eskoletan ere eman ahal izango da izena urrian eta azaroan, eta plazan eta Sanjuandegin ere izango dira batzordekideak hainbat egunetan.*



Herriko ikastetxe guztiek bat egin dute Euskaraldiarekin. ||| Euskaraldia



Aritz Azpiazu 'Arria VI'.a.

||| ESANA DAGO |||

||| “Jendeak espero du egingo dituzula direnak eta ez direnak, Arria zarelako”

||| “Aitonak asko daki, eta aholku asko ematen ditu.”

ARITZ AZPIAZU
aizkolaria

||| “Nire talde ohiarekin, Isladarekin, egin genuen kontzertu bat Sanagustinen, eta leku magikoa iruditu zitzaidan. Faltarekin itzuli nintzenez sentipen bera izan nuen”

BEÑADIN LOHIAGUE
Falta taldeko musikaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Aginkeriak

BMWa? Noski, azpeitiar batek zer bes-tela". Esaldi hori entzun dudak bakoitzeko euro bat eman izan balidate, honezkero... BMWa kapritxo bat dela onartzeko inolako arazorik ez. Askoz ere kotxe apalagoarekin nire beharrak asetzeko inolako arazorik ez nuke, baina gizon ahula izan eta kapritxoententazioan erori ni neu neroni.

Marka bai, kapritxoa da; baina kotxea ez, kotxea behar hutsa. Garraio publikoaren onurez hitz egiten den honetan, esaidazu lagun jator horrek, nola demontre egin behar dudak nik, garraio publikoan, Azpeitia-Mira-

mon joan-etorria, gutxieneko baldintza duinetan. Punpa lasterrean egin dudak kalkularen arabera, lanerako, azken 28 urteetan, ia 6.000 joan-etorri egin ditut xapoen herria eta Miramon artean. Eta noski, erabateko tontoa ez naizenez, lanerako hainbeste kilometro egin behar izanda, marka bai, kapritxoa; kotxea ez, kotxea beharra, eta kotxearen motorra, diesela.

Akabo Jesus. Erotu egin al haiz, Txetxu? Diesela? Munduaren amaiera dakarten kutsatzaileetako bat bihurtu haiz, Urbieta! Ez lotsatzea ere! Errepidean noala albokoek



|||||||txetxu urbieta||||

gaizki begiratzen didatenaren irudipena daukat. "Ederki damutu behar duk! Diesel erregaia urrearen pare ordaindu beharko duk. Horra hire penitentzia". Profesionalen diesela ez da garestituko, baina guk bezala lanerako ezinbestean kotxea behar dugunok eta bere garaian merkeago ateratzen zelako diesela aukeratu genuenok, orain larrutik ordainduko dugu gure krudelkeria.

Fida zaitez gure aginduetara egon beharko luketen gure agintariez. Hego haizea baino azkarrago aldatzen dira. Eta gu uso pasako uso gaixoak.*

|||IKUSTEKO|||



▲PAPIROFLEXIAREN UNIBERTSOA IRITSI DA HERRIRA.

Origami edo papiroflexia teknika lantzen duenik ere bada herrian. Horren erakusle da argazkia; izan ere, hainbat herritarrek papera tolestuz askotariko figurak egin izan dituzte Orkatz kultur elkartean. Irudian hainbat animalia ikus daitezke. Badute entretenimendua! 📄👉👈 Uztarria*

IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Goenan zaborra, berriro

HERRIA. Pelma bat naizela pentsatuko du norbaitek, eta egia da, izango naiz. Zenbait konturen aurrean ezin dugu bestaldera begiratu eta ezer gertatuko ez balitz bezala lasai egon. Zenbait kontu ezin dira onartu, eta salatu egin behar dira. Jarrera ez zibiko hauek ez dute inongo barkamenik. Errudunik ez dut topatu nahi, baina bai erantzukizuna norbaitena dela jakinaraztea, kontua airean gelditu ez dadin.



juan karlos arellano



Etekin bikoitza

EKONOMIA. Baserrigintza gure inguruan osasun onean dagoela esan genezake. Egitasmo baikor asko egin dira azkenaldian, bestelakoak ere badiren arren. Etekin ekonomikoa ez da helburu bakarra; etekin ekologikoak ere bere pisua hartu behar du gure etorkizunean.



Arte ikusgarria, arte iragankorra

KULTURA. Andoni Bastarrikaren hareazko obrak ikustea benetan erakargarria da. Denok jolastu izan dugu hondartzan zuloak edo gazteluak egiten, baina ezinezkoa zen horrelako irudiak egin zitezkeela pentsatzea. Artista batek egindakoak dira eskulturok zalantzarik gabe:

gehienon begietara, errealismoa da azpeitiarraren lanen ukiturik nabarmenena. Ikusgarriak, txalogarriak, dira lanak, baina harea euripean eta esku artean desegin egiten da, irudiak desagertu egiten dira. Arte iragankorra da, gu bezalaxe.*

INKESTA

erosketa poltsak erabiltzen al dituzu?

 **Ihintza Elustondo**

IGOR LIZASO

37 urte



“Erosketak egitera joaten naizenean, etxetik eramaten dut poltsa. Plastikozko poltsak gutxiago erabili behar direla esaten hasi zirenean hartu nuen ohitura hori, eta denok gauza bera egin beharko genukeela uste dut. Beharrezko neurria da ingurugiroa zaintzeko”.

Plastikozko poltsak gutxiago erabili behar direla esaten hasi zirenean hartu nuen ohitura hori, eta denok gauza bera egin beharko genukeela uste dut. Beharrezko neurria da ingurugiroa zaintzeko”.

MIREN AZKUE

50 urte



“Etxetik joaten banaiz erosketak egitera, poltsa hartuta joaten naiz, baina kaletik zuzenean joanez gero, askotan ez. Ohitura hartu beharko nuke poltsa beti gainean eramateko. Garrantzitsua da jendea poltsa etxetik hartzen hastea; beti eraman beharko genuke denok poltsagainean”.

Etxetik joaten banaiz erosketak egitera, poltsa hartuta joaten naiz, baina kaletik zuzenean joanez gero, askotan ez. Ohitura hartu beharko nuke poltsa beti gainean eramateko. Garrantzitsua da jendea poltsa etxetik hartzen hastea; beti eraman beharko genuke denok poltsagainean”.

ARANTXA MANZISIDOR

59 urte



“Goizetan, erdi lotan joaten naiz erosketak egitera, eta askotan ahaztu egiten zait poltsa hartzea. Normalean, saltokiko poltsak erabiltzen ditut. Ikusi dut leku batzuetan poltsak kobratzen hasi direla, eta hori ez zait ondo iruditzen. Hain txarrak baldin badira, aspaldi desagertuta egon behar zuketean plastikozko poltsak”.

Goizetan, erdi lotan joaten naiz erosketak egitera, eta askotan ahaztu egiten zait poltsa hartzea. Normalean, saltokiko poltsak erabiltzen ditut. Ikusi dut leku batzuetan poltsak kobratzen hasi direla, eta hori ez zait ondo iruditzen. Hain txarrak baldin badira, aspaldi desagertuta egon behar zuketean plastikozko poltsak”.

Zuzen, zehatz, natural

Joan den iraileko astelehen goiz arrunt batean, zurrupatu ohi dudak kafesneak abian nekez jartzen duen esnatzeko ahalegina erabat bizkortu zidan irratiko albiste batek: neuronen funtzionamendua kopiatuta, matematikan oinarrituta eta adimen artifiziala landuta, lexikotik, hitzetatik harago sintaxira eta semantikara salto egin omen dute, euskara-gaztelania, gaztelania-euskara itzultzaile automatiko zuzen, zehatz eta naturala sortzeko.


Sartu naiz demoa dagoen gunera (modela.eus/probatu.html), baina ez dabil. Hori bai, aurrez egin dituzten kontsultak irakurri ditut, eta itzulpen horiek egiteko gai bada, a ze trastea asmatu duten! Dagoeneko ez dugu Google Translate erabili beharrik izango dendako atean oharren bat eskegi behar dugunean, jatetxeek menua gaztelania hutsean ipini beharrik ez dute izango eta kaleko karteletan ez da akats gramatikalik edo ortografikorik egingo, ezta Udalaren jakinarazpenetan ere.



Imanol Amiano

Izan ere, zein erraza den bere borondaterik onarekin ordenagailura jo eta ateko kristalean tramankuluak emandako itzulpen barregarria jarri duenaren kontura trufa egitea, gaztelania hutsezko kartelak eta oharrak dauzkagun bitartean; edota, boteprontoan burura etorri zaizkidan “Gazteiz”, “lehiio” edo “ingurunmena” irakurri behar ditugunean, sarri majo kostatutako euskarrietan. Hara, ez dut nik herrian barrena gaztelaniaz idatzitakoetan “Bitoria”, “bentana” edota “medio ambiente” bezalakorik irakurri; auzo-lotsa sentitzen dugu *uve* baten ordeze bat irakurtzen dugun kasu urrietan. Aldiz, normalean, ez diogu garrantzirik ematen okerreko ese edo zeta bati, edo *hatxe* bat edo beste falta izateari; askotan, konturatu ere ez gara egiten; gehienetan (gehiagian) bost axola, gainera. Horrela, natural.

Aipatutako dendariari baliagarria izango zaio itzultzaile berria; gainerakoek arreta eta borondate pixka bat jartzea nahikoa litzateke.*

Gal detzen hasita, izango al da euskal pentatloi txapelketaren edizio berririk datozen urteetan?  **Uztarria**

Asisko anaia txikia

Urriaren 4an Asisko San Frantziskoren eguna da. Ez dakit izenak ezer esaten dizun. Niri, asko. Izan zen eta erakutsi zuen guztia hitz batean biltzen da: *anaia*. Jakina, hitz hori ere motz geratzen zaigu euskaraz –are motzago beste hizkuntzetan–, gizonezkoa bakarrik adierazten baitu. Lau hitzez adierazten ditu euskarak senide arteko harremanak, batean agortu ezinik: ahizparentzat *ahizpa*, anaiarentzat *arriba*, arrearentzat *neba*, anaiarentzat *anaia*. Anaien anaia eta arreben neba ez ezik, Frantzisko ahizpen ahizpa eta anaien arriba ere izan zela deritzot, genero-muga guztiak zeharkatuz.

Duela 800 urte, enperadore, errege eta tokian tokiko jauntxoek gizarte feudalean, menpetasunaren munduan, senidetasuna aldarrikatu zuen, diskurtso handiez baino gehiago eguneroko biziera apalaz. Burgo edo hirietan merkatari burgesen klase berria gailentzen hasia zenean, txikiaren eta azpikoaren aukera egin zuen. Aita merkatari aberatsari aurre



Joxe Arregi

egin zion eta anaia lepradunak besarkatu zituen, pobreetan pobreenak.

Aberastasunen gutizian usteldurik, botere liskarretan trabaturik, egia bakarraren jabe zela sinesturik, heresiak eta heretiko guztiak garbitzearekin obsesionaturik, musulmanen aurkako gurutzadetan setaturik zegoen Eliza klerikal, dogmatiko, autoritarioaren ordeze, anaia-arrebatasunezko eta klerorik gabeko Eliza apal, pobre, gizatiarra amestu zuen. Inor kondenatuko ez zuen, dogma eta lege guztien gainetik errukia aldarrikatuko zuen Eliza.

Ez zuen ez apaiz eta ez monje izaterik nahi izan, “guztien anaia pobre eta txiki” baizik. Ez zuen ordena handi bat fundatu nahi izan, anaia txikien mugimendu ibiltari bat baizik, komentu finkorik eta inolako jabegorik gabe. Inolako nagusigorik gabe. Gizaki eta izaki guztien anaia txikiena izatea zuen bizipoz. Senidetasunak egin zuen zoriontsu. Gure mundu arrakalatu ba ote dugu beste irtenbiderik?*

TXISTERATIK



%58k ikus omen ditzokete estereogramak. Besteoi, magian sinestea geratzen zaigu...

enok sudupe

Bi solairuko tartea

Han zeunden. Etxe atarian, ateari begira. Giltzak bilatzeari ekin nion, eta barrura sartzeko metodo eraginkorrena nik nuela pentsatuta edo, zain geratu zinen. Portala ireki nuen. Ateari heldu nion, eta irribarre batekin eskertu zenidan barrura sartzen zinen bitartean. Igogailuaren zain geratu ginen, eta argitan, goitik behera begiratu zintudan. Arropa koloretsuekin zentozen, bero izan arren burua eta guzti estalita. Igogailuko atea ireki eta nire solairua aukeratu nuen, keinu batez zurea sakatzeko gonbita eginez. Biari eman zenion, esku beltzaranarekin. Lau-

garrena gurea. Hitzik egin gabe joateko ere ez zen izango tarde luzea.

Egurdiaz jardun beharrean, kanpotarra zinela ondorioztatu nuen. Pakistandarra, ziu-rrenik. Bizilagun berriren bat edo bigarrenkoen familiartekoa. Eskuinean bizi denaren ahizpa, seguruenik. Antza eta guzti hartu nizun. Beroa pasatuko zenuela ere ondorioztatu nuen, eta soinean zeneraman kolore festa 'normaltasunez' eramatearen inbidia sentitzeko beta ere hartu nuen. "Konbinatzen ez dudalako kritikakuko naute gero" pentsatzen ari nintzela, igogailuaren atea ireki

ziren. Irribarre batekin, "adios, hasta luego", esan nizun. "Agur. Hurrengora arte", erantzun zenidan, beste irribarre batez. Eta ondorengo bi solairutako distantzia ez zen nahikoa izan nire gizon-zuri-europarraren jantzia erantzeko. Aurreiritziz beteta irudikatu zintudan eta hizkuntza aukeratzeko aukera emateko gai ere ez nintzen izan.

Orain, Euskaraldian izena emanda, nire parte-hartzea sinbolikoa baino landu beharrekoa izango dela erakutsi didazu. Ea berriro bat egiten dugun eta egurdiaz mintza gaitzkeen.*



|||||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

Idazlea ere bada azpeitiarra, eta hil honetan berari egokitu zaio galderei erantzutea.

Zer ematen dizu idazteak?

Pertsonaia desberdinen azalean bizitzeko aukera.

Misteriozko eleberri bat idatzia duzu. Maitasunak bala du misteriorik? Zein?

Inor maitatzeko, lehendabizi norbera maitatzen ikasi behar dela.

Eta sexuak?

Aurreko erantzunak balio du galdere honentzat ere. Kar, kar, kar!

Zerk inspiratzen zaitu?

Ikusten edo entzuten dudana edo zer. Gauza simpleenetan egon daiteke istorio eder bat.

Txikitako zein ipuinetako pertsonaia izango zinateke?

Printzesa eta printze urdin gehitxo zeuden gure txikitako ipuinetan, baina nik Patxi Errementaria nuen gogoko. Deabruak ere ez zion adarra jotzen hari.


Xoxotetik Azpeitira begira jarrita, zer izenburu erotiko jarriko zenioke herriari?

Haran hezeko desirazko hormak.

Idatzi, egunez edo gaeuz?

||MIREN GORROTXATEGI||

Adina. 37 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
lanbidea. Irakaslea.



Berdin dio gau ala egun, gogoa eta ahala elkartzen direnean. Sexuarekin antzera gertatzen da. Kar kar, kar.

Zer da zuretzako fantasia?

Esna amets egiteko modua.

Idatziko esaldi sugerente bat?

Goxo-goxo eta xuxurlatuta, edozein esaldi izan daiteke sugerente.

Sexu kontuetan, istorioak aurrez pentsatzea gustatzen

zaizu edo bat-batean sortzea duzu gogokoago?

Idaztearekin bezala pasatzen zait: aurrez ideia bat izan dezakezu, baina emaitza inoiz ez dago jakiterik.

Kultura erotiko bat sortze bidean, zer egin dezakegu?

Askatu. Askatu lotsak, buruak, gorputzak. Tabu gehitxo dago oraindik, geure buruari jartzen dizkiogunetatik hasita.

Irakurtzen ari zaren liburu bat?

Caliban eta sorgina, Silvia Federicirena.

Zein idazlerekin afalduko zenuke?

Bizirik balego, Carson McCuller-ekin.

Amets bat?

Uharte desertu bat neuretzat, nahi dudanean eta nahi dudanearekin ihes egiteko.*

|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, urria: hilaren 24an
(16:00-19:00) eta 6an (10:00-13:00).





Fotogramen uzta

Azken urteetan hainbat ikus-entzunezko lan ari dira egiten herritarrek. Askotariko lanak egin dituzte; film laburrak, dokumentalak eta filmak. 📌 Julene Frantzesena

◀ 'LEKAIME'

40ko hamarkadan Hitlerrek eta Francok Hendaian egin zuten bileran oinarritutako filma da Xanti Rodriguezek zuzendutakoa. 17 minutu inguruko film laburra 'Handia' pelikulako lantaldeko kide batzuen laguntzarekin grabatu du, eta Oihana Maritorea, Amaia Lizarralde eta Asier Hernandez dira aktoreak. Lanaren muntaia eta posprodukzioa joan zen uztailean bukatu zituen lantaldeak. Grabaketetarako lokalizazioak Azpeitikoak eta Donostiakoak dira. Urriaren 19an estreinatuko du filma Rodriguezek: hain zuzen ere, Soreasu antzokian ikusi ahal izango da, 21:00etan. 'Lekaime' Sitgeseko beldurrezko eta fantasiatzko zine jaialdirako hautatu dute.



▲ 'KOROSAGASTI'

2017aren hasieran jarri zuten proiektua martxan. Beizamako krimenetan oinarritutako filma da Asier Sustaeta zuzentzen ari dena. Grabaketa aurreko fasean dago filma, eta 30 bat lagun aritu dira lanean: gidoia Alaitz Olaizolak, Asier Sustaetak eta Miren Gorrotxategik egin dute; arte zuzendaritzaz Itziar Elias arduratuko da; aktore zuzendariak Idoia Uranga eta Amancay Gaztañaga izango dira; jantzien ardura Xanti Alkortak izango du; irudi zuzendaritzaz Oihan Amezua, Oier Arregi, Saioa Murua eta Yuri Agirre arduratuko dira; ekoizpenean ari dira Nora Alberdi, Netzer Bereziartua, Xabi Otamendi eta Maialen Etxaniz. 48 aktore ariko dira lanean, eta horietako asko bailarakoak dira. Urriko azken astean hasiko dira grabaketekin, eta otsailera arte ariko dira zeregin horretan. Azpeitian, Beizaman eta Azkoitian grabatuko dute filma, 31 lokalizaziotan. Udalaren sormen beka jaso du proiektuak.

▶ 'IRTEERA'

Jai karnabal arratsaldeko zezenaren irteeraren uneak jasotzen dituen lana Xanti Rodriguezek zuzendu zuen, sokamuturraren 500. urtemuga zela-eta sortutako Herri Batzordearekin elkarlanean. Joan zen urtarrilaren 27an aurkeztu zuten lana Soreasun egindako urteurreneko ekitaldi nagusian. Hainbat herritarrek parte hartu zuten zezenaren irteeraren aurreko eta plazara iritsi arteko uneak jasotzen dituen 'Irteera' film laburrean.





▲▶ ANNAPURNA II 1986' ETA 'AMETSEN HARRIA'.

2017ko irailean 'Annapurna II 1986' dokumentala berreskuratzeko eta espedizio haren prestaketak azaltzen dituen ikus-entzunezkoa egiteko proiektua jarri zuten martxan Kulturaz kooperatibak eta Paradisu Zinema zineklubak. 86ko espedizioa Agustin Arenasek zuzendu zuen, eta 30 urtera berreskuratu dute. Bestalde, 2018ko urtarrila eta apirila bitartean egin zituzten 'Ametsen Harria'-ren grabaketak, eta posprodukzio lanak eginda, irailaren 14an estreinatu zuten lana. Ikus-entzunezkoarako Annapurna II espedizioan parte hartu zuten kideak elkarrizketatu zituzten, eta lantaldea Yuri Agirrek, Agustin Arenasek, Ibon Gerrak eta Iban Izagirrek osatu dute.





▼ **'KURAIOSA'**

Gai tabuak paintailaratuta emakumeen ahalduntzea sustatu nahi du Nora Alberdik grabatzen hasi aurreko prozesuan den dokumentalarekin. Ideia Herbehereetan zela otu zitzaion azpeitiarrari, eta Udalaren Sormen Beka jaso du lanaren proiektuari esker. Iraila bitartean gidoia osatzen aritu da Alberdi, eta abendua bitartean egingo ditu dokumentaleraiko elkarrizketak. Urtarriletik aurrera, berriz, performanceak. Ikasturte bukaerarako lana prest izatea aurreikusten du gazteak. Gradu bukaerako lana ere izango da 'Kuraiosa', eta Alberdik 11 emakume elkarrizketatu ditu. Performanceak egingo dituen aktorea aukeratzeko casting-a egingo du.



▲ **'ZULO'**

2017an estreinatu zuten 'Zulo' film laburra, Lekeitioko Zine Bileran. Amancay Gaztañaga zestoarrak eta Erika Olaizola azpeitiarrak ondutako lana da: beraienak dira lanaren ideia eta testua, eta beraiek aritu ziren zuzendari lanetan. Aktore ugariak parte hartu zuten 2016ko abendutik 2017ko urtarrilera bitartean egin zituzten grabaketetan, eta filmaren arlo teknikoa Taom produkzioaren ardura izan zen. Hainbat sari jaso du lanak, hala nola Lekeitioko Zine Bileran, Zinebin eta Huhezinean. Gainera, Laburbira zirkuiturako hautatu zuten lana.



◀ **UROLA BAILARAKO TRIKITI MUGIMENDUA.**

Trikigiro elkarte eta Kulturaz kooperatiba Urola bailarako trikiti mugimenduari buruzko dokumentala osatzen ari dira. Aurki egingo dute proiektuaren aurkezpena. Orain dela hilabete batzuk hasi zituzten grabaketak, eta hainbat lagun elkarrizketatu dute. Argazkian, lzer elkarrizketa batean.*

Duela 30 urte itxi bazuten ere, askok ondo gogoan dute oraindik Urolako Trena. Hondartzan eguna igarotzeko, ondoko herrietara garraiatzeko edota hiriburura iristeko ezinbesteko komunikabidea izan zen herritar askorentzat Zumarraga eta Zumaia arteko tren hura, eta erabiltzaile horiek ez dituzte ahaztu orduko bizipenak. 1988an, ordea, Eusko Jaurlaritzak behin betiko itxi zuen tren enblematikoa, eta erabakiak ezustean harrapatu zituen herritar asko. Itxieraren kontra, ugariak izan ziren herritarrek nahiz langileek egin zituzten mobilizazioak.

XX. mende hasierarako, Azpeitiko eta inguruko herritarrak hasita zeuden beste komunikabide bat eskatzen, orduko bide malurtsuak ordezkatzeko zituen garraio moderno, eroso eta azkarra behar zutelako. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak hartu zuen trena egiteko proiektuaren ardura, eta 1926. urterako prest zen garraio berria. Alfonso XIII.ak, orduko Espainiako erregeak, inauguratu ondoren ekin zion trenak merkantziak zein bisitariak garraiatzeari, eta horretan jarraitu zuen hurrengo 60 urteetan.

Espainiako bigarren tren elektrikoa izan zen Urolakoa, eta, beraz, mugari bat ezarri zuen garai hartako gizartean. “Oso ondo eraikita zegoen, eta punta-puntako teknologia zuen. Egungo Abiadura Handiko Trenarekin aldera genezake tren hura”, esan du Juanjo Olaizolak, Burdinbidearen Euskal Museo-ko zuzendariak. Haren arabera, ingeniari-za



Urolako Trenak Azpeitian zituen hiru geltokietako bateko irudia. Gaur egun Burdinbidearen Euskal Museoak

Betirako itxi zuten

Berritzeko eten zuten haren zerbitzua, ustez. Baina berritu beharrean, itxi egin zuten. 30 urte pasatu dira Urolako Trenaren agurretik. 📌 A. Olaizola/M. Etxaniz/M. Oiarzabal



ordezkutzen du geltoki zaharra. ■■■Euskotren

lan “ikaragarria” egin zuten trena martxan jartzeko.

Hasierako berrikuntza igarota, ordea, bes-telako itxura hartu zuen garraio-bideak. Izan ere, Olaizolaren arabera, 60ko hamarkadatik aurrera erakundeek albo batera utzi zuten trena, eta ez zuten inbertsiorik egin hura mantentzeko: “Urteek aurrera egin ahala, mantenu falta ikaragarria zuen: esaterako, motorra erre egin zitzaion. Katenaria eta erraiak, berriz, oso gastatuta zituen. Miraria izan zen ezer ez gertatu izana”.

Hori hala izanik, 80ko hamarkadan hasi ziren trenaren bideragarritasuna aztertzen. Orduko datuen arabera, urtean 500.000 eta 600.000 lagunek erabiltzen zuten garraioa, baina azken urteetan jaitsita zegoen trenez garraiatzen zuten material industrialaren ko-

purua. 1985etik 2003ra bitartean Azpeitiko alkate izan zen Jose Mari Bastidak gertutik bizi izan zituen Urolako Trenaren azken urteak, baina haren arabera, mantenu falta ez zen izan trena ixteko arrazoi bakarra. Hark adierazi duenez, trenaren inguruko azterketa ugari egin zituzten bera alkate zen bitartean, eta horietatik ondorioztatu zuten garraioa ez zela bideragarria. “Datuek erakutsi zuten bailaran ez zegoela nahikoa biztanle trena mantentzeko. Izugarritzko dirutza eskatzen zuen; ez zen errentagarria”.

Tunelaren bestaldean argia ikusi ezinik hasia zen Urolako Trena, eta aurreikuspenak ezkorraz baziren ere, 1986an Eusko Jaurlaritzak – aurreko urtetik erakunde horrek zuten trenaren gaineko eskumena– Azkoitia eta Zumaia arteko trena eraberritzea erabaki

zuen. Beraz, trenak joan-etorriak egiteari utzi zion, eta jaurlaritzak hainbat inbertsio egin zituen hurrengo urteetan. Besteak beste, erraiak aldatu eta nasak berritu zituen. Trena martxan jartzeko inbertsioak amaitu gabe zeudenean, ordea, gobernua aldatu zen Eusko Jaurlaritzan, eta Enrique Antolin sailburuak erabaki zuen behin betiko ixtea Urolako Trena, zerbitzua “bideragarria” ez zela ar-gudiatuta.

Olaizolak eta Bastidak “penaz eta kezkaz” hartu zuten Urolako Trenaren itxieraren gaineko erabakia: penaz, herriak garraio-bide bat galdu zuelako, eta arduraz, komunikazio berrien premian gelditu zirelako. “Azpeitia eta bailara osoa zulo batean geratu ziren, eta beste irtenbide batzuk bilatu behar genituen. Trena itxiko zutela jakin genuenean, gure borroka izan zen Elgoibarrera eta Zumaia aldera joateko errepidea hobetzea”. Izan ere, Bastidaren ustez, herriarentzat “mesedegarriagoa” zen errepideak konpontzea, eta behin lan horiek egingo zituztela jakin zutenean “onartu” zuen trenaren gaineko erabakia. “Askotan sentimenduekin jokatzeko dugu, baina ez dut uste Azpeitiak askorik galdu zuenik, beste zerbitzu eta azpiegitura batzuek ordezkatu baitzuten garraio-bidea”. Olaizolak ere ildo beretik hitz egin du: “Azpiegitura bat kentzean, herriak asko galtzen du, baina irabazi ere egin zuen, errepide hobek egin baitzituzten gero. Orduko arduradun politikoek errepideak hobetzea lehenetsi zuten, eta logikoa izan zen hori, garai hartan ez zegoelako garraio publikoaren kontzientziarik. Bailaran, ordea, sentimendu iluna utzi zuen trena konpontzen hasi eta gero hura ixtea erabaki izanak, engainatuak sentitu baitziren herritarrek”.

Trena itxi zenetik, Burdinbidearen Euskal Museoa kudeatzen du Azpeitiko geltokieta-ko bat. Azken urteetan, gainera, ugariak izan dira trena berriro martxan jarriko dutela dioten zurrumurruak. 2008an, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak plan bat osatu zuen, eta egitasmo horrek Azpeitia eta Zumaia artean merkantzia garraiatzeko tren zerbitzua indarrean jartzea aurreikuspenak zuten. Oraingoz, ordea, plana ez dute gauzatu, eta Bastidak eta Olaizolak ere ez dute uste hori gertatuko denik. Izan ere, alkate ohiaren arabera, ekonomikoki ez da posible trena berriz martxan jartzea, eta “astakeriatzat” jo du egitasmo hori: “Proiektua, ekonomikoki, ezingo litzateke gauzatu”. Olaizolak, berriz, honako hau uste du: “Bailarak ez du egiten presiorik trena berriz martxan jartzeko. Izan ere, Mar-

cial Ucin enpresa itxita dago, eta zama eramateko adina eskari ez dago. Bestalde, autobus zerbitzu ugari daude, eta jendea ohitu egin da autoz edo autobusez ibiltzera”.

Herri presioa

Erakundeetako agintariak hartutako erabakiak –Urolako Trena ixteak– denetariko erreakzioak piztu zituen herrian. Baziren erabakia onartu zutenak ere, baina ehunka herritar agertu zen trenaren alde. Borroka hartan zaratara asko atera zuen eragilea izan zen Urolako Trenaren Aldeko Komitea. Talde hartako kideak arduratu ziren trenaren aldeko mezua lau haizetara zabaltzeaz. Komiteko kide ziren Joxe Mari Iturria (Azpeitia, 1945), Miguel Angel Agirre (Azpeitia, 1958), Mitxel Igartaundi (Zestoa, 1961) eta Imanol Agirre (Azpeitia, 1958). Urolako Trenaren itxieraren 30. urteurrenean berriro elkartu dira, aspaldiko partez. Elkarrekin gogoratu dituzte urte haietako borrokak.

Urolako Trenaren Aldeko Komitea bailarako sei herritako norbanakoek osatzen zuten. Eguzki talde ekologistaren bitartez hasi ziren elkartzten: “Orduan, Lemoizko zentral nuklearra zela eta, puri-purian zegoen nuklearren aurkako borroka, eta indartsu zegoen mugimendu ekologista. Gure eskualdean ere borroka ugari urteak izan ziren haiek: antinuklearrak, Urolako Trena, Lapatz, Nuarbeko urtegia...”. Komiteko kideen aburuz, Urolako Trenaren egoera ez zen “batere ona” erakundeetako agintariak hura ixtea erabaki zutenean. “Inauguratu zutenetik, apenas egin zuten inbertsiorik tren eta burdinbide haietan, mantenuari lotutako konponketak salbu”, azaldu dute. Gipuzkoako Foru Aldundiarena zen trenaren gaineko eskumena, eta urte batzuen buruan aldaketak izan zirela kontatu dute komiteko kideek: “Trena zama bat bihurtzen ari zenez, Eusko Jauriaritzari pasatu zioten eskumena. Erakundeak Urola trenaren gaineko ikerketa bat eskatu zuen hura zein baldintzatan zegoen ezagutzeko eta zerbitzuarekin zer egin baloratzeko. Azterketaren emaitzek zioten Urolako Trena martxan jarraitzeak inbertsio handia eskatuko zuela; zerbitzuak bizirik jarraituko bazuen, ezinbestekoa zelako trenbideak eta bestelako azpiegiturak egokitzea. Behin egokitzapen eta berritze lanak eginda, tren zerbitzua bideragarria izango zela zioen txostenak. Inbertsiorik ez egitekotan, aldiz, Urolako Trenak etorkizunik ez zuela zioen azterlanak. Bi aukera horien aurrean, Eusko Jauriaritzak Urolako Trena ixtea erabaki zuen”.



Trenaren itxiera gaitzesteko Urola Trenaren Aldeko Komiteak deitutako manifestazio jendetsuetako bat. ■■Eus

Urolako Trenaren Aldeko Komiteko kideen iritziz, erabaki hura hartzea ez zen “une hartan” pentsatutako zerbait izan: “Ordurako bazegoen EAJren etorkizuneko inbertsioen inguruko plan estrategiko bat: *Euskadi 2000* izeneko plana. Txosten hartan irakur zitekeen EAJren zenbait proiektu egin ahal izateko ezinbestekoa zela Urolako trenbidea bertan behera uztea. Beraz, aurretik pentsatuta zuten Urolako Trena ixtea, nahiz eta erabakia gerora atera zen argitara”. Ekonomia krisia “nabaria” zela gogoratzen dute, eta sasoi hartan “inork” ez zuela trenaren aldeko apusturik egin nahi ere bai. Hala ere, erakundeek burdinbidea berritzeko lanak hasi zituztela azaldu dute komiteko lagunek: “Errepide sarea indartzea zen agintarien nahia. Dena den, Urolako Trena itxi baino lehen, agintariak diru dezente bideratu zuten trenbidea berritzeko lanetara, obra haiek, azkenean, ezertarako balio izan ez zuten arren”.

Komiteko kideek adierazi dutenez, Azpeitiko EAJk Urolako Trenaren aldeko jarrera hartu zuen “hasieran”, eta Udaleko zenbait agintarik bat egin zuen Urolaren aldeko komiteak deitutako hainbat mobilizazioekin. Horrela gogoratu dute: “Egun batean, eskualdeko zenbait alkatek beren jarrera zein zen azaltzeko agerraldia egin zuten Loiolan, guk manifestazioa deitu genuen leku eta ordu berrean. Guri primeran etorri zitzaigun hura,

nahiz eta alderdi haren itxurakeria hutsa izan; ordurako bazekiten Urola itxi zutela”.

Itxieraren atzean baziren “interesak eta interesatuak”, komiteko kideen hitzetan: “Alderdi politikoek eta enpresek interesak zituzten. Marcial Ucin, esaterako, lantegia Landeta aldera handitu nahi zuen, eta trenbidea eremu horretan zegoenez, trena oztzopoa zen enpresari harentzat. Azkoitiko Udalak Martirieta aldera zabaldu nahi zuen hango industriagunea. Behin Urola itxita, trenbidearen zati bana hartu zuten Marcial Ucin enpresak zein Azkoitiko industriaguneak”.

Trenaren alde egindako bidean “etsai gogorak” aurkitu zituztela gogoratu dute komiteko kideek. Baina haien ustez, agintean zeudenek “espero ez zuten zerbait” gertatu zen Azpeitian. “Herri oso bat irten zen Urola trenaren alde, baita agintean zeuden haien aldeko jendea ere. Milaka laguneko mobilizazioak izan ziren. Gazte gutxi, 30 urtetik gorako herritar ugari eta jubilatua asko mobilizatu zen. Orduan oso arraroa zen adineko jendea protestetan parte hartzen ikustea, baina kasu hartan zentzua zuen: jubilatua ziren Urolako Trena gehien erabiltzen zutenak”. Manifestazioez gain, “denetariko” ekintzak antolatzen zituen komiteak: parodia kritikoak, bizikleta martxak, kontzertuak...

Prensak trenaren itxierari eman zion tratamendua “aipatzekoa” dela adierazu dute ko-



Euskotren

mitiko kideek: "Gure borrokari boikota egin zioten hedabide gehienek. Bazirudien ez zegoela itxieraren kontrako jarrerarik. Hedabideen arabera, trenaren alde agertzen ginenok mistikoak eta jende arraroa ginen; goriak eta komunistak. Gainera, Urolako Trenaren Aldeko Komitea ez zen existitzen haienztat. Hedabideek ez zuten erakutsi nahi baze-goela talde antolatatu bat borroka hura elikatzen eta bultzatzen. Nahieran manipulatzuten zuten informazioa".

Komiteko kideak bost urte inguruz aritu ziren trenaren alde borrokan, eta azpimarratu dute, "beste behin", agintariak irabazi zutelapartida: "Guk, zoritxarrez, hasitako borroka gehienak galdu ditugu, eta ordurako danbatekoak hartzera ohituta geunden, agintean zeudenek beti beren interesen arabera hartzen baitzituzten erabakiak". Guda hura galdu zuten arren, Urolako Trenaren aldeko borroka herri ekimen bezala "mundiala" izan zela azpimarratu dute komiteko kideek.

Itxi arteko onik ez

Urolako Trenaren azken urteak barrutik eza-gutu zituen Roberto Olaizolak (Azpeitia, 1961). Ez du zehatz gogoan, baina "18 urterekin-edo" hasi zen Urolan lanean, Azpeitiko geltoki nagusian, bertan lan egiten zuen bere aitaren pausoak jarraituta. "Zentralean egiten nuen lan, goizez, indar-etxean. Trena

abian jartzeko hari indarra ematea zen nire eginkizuna. Goizeko lehen trena, seiretakoa, irteerako denak prest egon behar izaten zuen. Zortzi orduko lan jarduna izaten zen. Goizean goizeko prestaketak egin ondoren, zaintza lana egiten genuela esan daiteke; indarra erortzen bazen, zerbaitek huts egiten bazuen, berriro dena martxan jartzeko", kontatu du.

Bere lantokia, indar-etxea, "trenak gelditzen ziren pare horretan" zegoela gogoratzen du Olaizolak. Baina lantoki eta tailer gehiago ere baziren herriko geltoki nagusian: "Gure aitak lan egiten zuen elektrizitatearen gunea, aroztegiak, trenak garbitzen zituzten tokia... Denetarik jendeak egiten genuen lan, jende mordoak ginen, goiz eta arratsalde, bi lanalditan banatuta. Esandakoez gain baziren makinistak, txartelak pikatzen zituztenak, geltoki buruak, errailetan ibiltzen zen jendea, trenak matxuraren bat zutenetan tailerlean konponketak egiten zituztenak...". Azpeitian bakarrik, langile asko.

Olaizolak 26 urte zituen trena itxi zutenean. Bera, hala ere, ez zen lanik gabe gelditu: Durangora bidali zuten Eusko Trenekoek, hango geltokiko tailerlean lan egitera. Azpeitian lan-kide izandako gehiago ere hara lekualdatu zituzten. "Bospasei joaten ginen hemendik, kotxean. Beste batzuk Errenteriara ere bidali zituztela dut gogoan. Nik pare bat urte egin nituen Durangon". Ordurako Eibar futbol taldean jokatzeko hasita zegoen azpeitiarra.

Urolako Trena itxi zuteneko sasoiaren zuzen, noski, samurra izan langileentzat. "Zurrumurruak entzuten ziren, trena itxiko zutela iraga-

rri aurretik", dio Olaizolak. Antzuak suertatu-ko ziren herritarren eta langileen mobilizazioak ditu gogoan. "Eginahalak egin ziren Urolako Trena ez ixteko, egundoko manifestazioak, baina alferrik. Langileok ere ibili ginen, batera eta bestera mugitu ginen, manifestazioetara. Langile asko ginen, gainera. Baina zirt-zart itxi zuten, ia konturatzerako, arraroa izan zen; oroitzapen hori daukat nik behintzat. Protestetan ibili ginen, gerora ere bai, baina haiek berea egin zuten", adierazi du, agintariak hartutako erabakiak atzera bueltarik ez zuela jabetuta.

Itxi zutenean, trena "zaharkituta" zegoela onartzen du Olaizolak, baina Urola bailarari eskaintzen zion zerbitzua nabarmendu du. "Jende askok erabiltzen zuen. Uda partean eta, geu ere askotan joaten ginen kostara trenean, erosoak zen eta. Zaharra zela? Bai. Baina bere funtzioa betetzen zuen, zerbitzu ona ematen zuen, egiten zuen kilometro gutxi-ko ibilbidean. Ikusi besterik ez dago, trenik gabe, hemendik Zumarragara edo Zumarragatik Zumaiarako joan-etorriak nola gelditzen diren", egin du gogoeta.

Eta gogoetarekin jarraitzen du, orduan gertatutakoa gaur egungoekin uztartuta. "Neuk ez nuen ulertzen trena ixteko erabakia, baina agintariak behin gauza bat pentsatzen dutenean... 30 urteren ondoren garai hartara begiratuta, baterako eta besterako zenbat diru erabiltzen den ikusita, berritza bazutela pentsatzen duzu. Beste toki denetan dago trena, hemen izan ezik. Baina, ez dakit, itxi arteko onik ez zuten izan; beraiena lortu zuten eta aurrera, beste denak kalera bidalita".

Langileen protestek ere ez zuten fruiturik eman. **Euskotren**

Herritarrek zer diote?

Herritarrei Urolako Trenaren inguruan galdetuta, gehienek oroimenez eta nostalgiaz gogoratzen dute. Erabili edo ez, Urola itxi zutenean tristuraz hartu zuten berria askok eta askok.

Uztarria kalera atera da, eta herritarrei zera galdetu die: Gogoan al duzu Urolako Trena? Zein oroitzapen dituzu? Erabiltzen al zenuen? Nola hartu zenuen itxieraren berria?



JOSE INAZIO SEGUROLA
(Azpeitia, 1949)

“Ez dut uste Azpeitian asko eragin zuenik”

“Ez nintzen asko ibiltzen, baina pixka bat bai. Marcial Ucinen egiten nuen lan. Pare horretan trenak enbarazu egiten zuen, tailerra handitu nahi baitzen. Horrek eragin zuelakoan nago. Kendu zutenean, autobusak jarri zituzten, eta horiek betetzen zuten Urolaren funtzioa. Ez dut uste trena kentzeak Azpeitian asko eragin zuenik”.



JOSUNE ITURRIA
(Azpeitia, 1963)

“oso erabilgarria zen guretzat, ezinbestekoa”

“Gazteak gineneko oroitzapen politak ditugu. Askok joaten ginen

Zumaiara, eta Zumarraga aldera ere bai sarritan. Haserre hartu genuen itxieraren berria. Gure etxean ez zegoen autorik, aitak ez zuen gidatzen, eta horregatik, oso erabilgarria zen guretzat trena, ezinbestekoa”.



MILA PEREZ
(Azpeitia, 1971)

“manifestazio handiak egin ziren Azpeitian”

“Abuztuko oporrak noiz iritsiko egoten ginen trenez Zumaiara joateko. Giro ederra egoten zen Urolan. Itxi behar zutela jakin genuenean, izugarritzko pena hartu genuen. Manifestazio handiak egin ziren Azpeitian, jende asko irten zen kalera. Orduan ez ginen ohartu zenbaterainoko kaltegarria izan zitekeen Urolaren itxiera”.



JUAN ALBIZU
(Azpeitia, 1950)

“gainerako herriek ez zuten asko borrokatu”

“Askok oroitzen naiz Urolako tre-

naz. Garai hartan denok ibiltzen ginen trenean, ez baitzegoen herri batetik bestera mugitzeko aukera askorik. Itxieren erabakia alderdi politikoen gorabehera izan zen. Herritarrek indar asko egin zuten arren, ez zen nahikoa izan erakundeen erabakia aldatzeko. Dena den, uste dut bailarako gainerako herriek ez zutela gehiegi borrokatu trenaren alde. Azpeitian zegoen indar gehien”.



CECILIA ETXABE
(Azpeitia, 1948)

“giro ederra sortzen zen urolaren baqoietan”

“Askok erabiltzen genuen trena. Hurrekin hondartzara joaten gi-

nenoi asko errazten zigun dena, zerbitzu ona ematen baitzuen. Horrez gain, gogoan dut giro ederra sortzen zela baqoietan. Gaztetxoek eta gazteek oihera egiten zuten denek batera tunelean sartutakoan, ilunpean. Itxi zuten garaiaz oso ondo oroitzen naiz. Pena sentitu genuen gehienok, baina erakundeek hartutako erabakia izan zen, eta haiek hartutako erabakia onartu izan ditut beti, zarata askorik atera gabe”.



EDURNE ZUMALAKARREGI
(Azpeitia, 1959)

“Itxi zutenean pena sentitu nuen”

“Sekula ez nuen erabili. Beti kotxez ibiltzen nintzen. Hala ere, itxi zutenean, pena sentitu nuen. Etxe paretik pasatzen zen, eta sarritan entzuten nuen haren *pi-pi!* hotsa; ez dakit, alaia zen. Nire ezagun askok Zumarragatik Azpeitira etortzeko erabiltzen zuten. Herriak trena nahi zuen, eta ondo etortzen zitzaion, zulo batean bizi baikara”.*

CENTERPOINT
ENGLISH ACADEMY

25+
URTE ZUEKINI

943 81 65 03 - www.centerpoint.eus

Talasoterapia



Ongizatea eta osasuna
Zelai talasoterapian



Etorri eta gozatu gure fitness
zirkuituaz eta ditugun menu berriez.

Sukalde berritua:

Eguneko menua, astebukaerako menua,
karta, bi lagunentzat mariskada, arrozak,
paellak eta menu begetarianoa.

ITZURUN HONDARTZA Z/G-20750-GIPUZKOA
TELEFONOA: 943.86.51.00
Erreserbak: reservas@talasoterapiazelai.com
www.talasoterapiazelai.com



Plazarik plaza

Amets Amubietak eta Larraitz Larrañagak urteak daramatzate elkarrekin dantzan. Aurten, Gipuzkoako Dantza Solte Txapelketa irabazi dute. 📌📍 Elena Marguello

Amets Amubietak (Azpeitia, 1997) eta Larraitz Larrañagak (Azpeitia, 1999) urteak daramatzate euskal dantzen munduan murgilduta. Txapelak, zapiak eta garaikurrak aspalditik irabazten dituzten arren, 2014. urtean osatu zuten bikotea, eta orduetik, Euskal Herriko plazetan elkarrekin

lehiatzen dira. Hainbat sari eskuratu dute urteotan; besteak beste, Gipuzkoako Dantza Solte Txapelketa irabazi dute aurten.

7 edo 8 urte zituela hasi zen dantzan Larrañaga; lagun guztiak joaten ziren dantza eskolara, eta haien saio bat ikusi ostean animatu zen bera ere. Adin berberarekin hasi zen

Amubieta ere, bere bi arreba nagusiak dantzan ibiltzen zirelako. Orduetik dira bi dantziariak Luis Alberdi *Beltzaren* eskolako kide. Eskolako guztiek bezala, hasieran talde handian egiten zuten dantza, eta geroago, Beltzak bikoteak egin zituen, eta txapelketetan parte hartzen hasi ziren.



Larraitz Larrañaga eta Amets Amubieta, Gipuzkoako Dantza Solte Txapelketako txapela eta zapi eskuetan dituztela.

Orain dela lau urtera arte Amubietaren bikotea Maialen Aldalur izan zen, baina Bartzelonara joan zen hura ikastera. Larrañagaren bikotea zen Jon Ibartzabalek, berriz, helduen kategoriara pasatu behar zutenean utzi zuen dantza. Orduan batu ziren bien dantzako bi-deak. Amubietak azaldu duenez, "persona batzuekin konexioa lortzen da, eta beste batzuekin, urteak pasatuta ere, ez da lortzen". Bikoteak dio beraiek lortu dutela "pixkanaka" konexio hori. "Entseguak egiten ordu asko pasatzen ditugu, eta dozenaka txapelketetan ere parte hartu dugu elkarrekin. Ez zara bakarrik sentitzen, beti bikoteak laguntzen dizu. Horrek guztiak konfiantza sortzen du bion artean", adierazi du Larrañagak.

Helduen txapelketetan, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dituzte bikote guztiak. Bi dantza mota horien koreografiak osatzeko, "gehien gustatzen" zaizkien pausoak egiten dituztela azaldu dute Amubietak eta Larrañagak, eta "beste bikote batzuei ikusi eta probatzeko gogoia" eragiten dietenak ere aukeratzen dituzte. Koreografiak Beltzak, Amubietak eta Larrañagak "elkarlanean" osatzen dituzte. "Urteak aurrea doazen heinean, pausoak aldatzen joaten gara, beti berdina ez egiteko eta eroso sentitzen garen pausoak dantzatzeko", azaldu du Amubietak.

Jantzien garrantzia

Badira, gainera, koreografiak ez ezik, arropak ere epaitzen dituzten txapelketak. Izan ere, txapelketa batzuetan arropa onenaren saria ere banatzen dute. Larrañagaren ustetan, epaimahaiak beti begiratzen dio janzkerari; haren arabera, "euskal dantzak oso elegantek dira eta jantziek lan handia" izaten dute. Bikotearen esanetan, txapelketetan parte hartzen duten bikote guztiak izaten dute janzkeretan "bereizgarriren" bat. Bikoteari jantziak Amubietaren amak egiten dizkio, lanbidez jostuna baita hura. Larrañagaren hitzetan, Ametsen amak "sekulako esperientzia" du. Arropak egiteko oihalak erostera joaten direnean, "gustukoen" dituztenak erosten dituztela dio Amubietak, eta ondoren, argazkietatik edo beste bikote batzuen arropetatik hartzen dituztela ideiak.

Uda garaian izaten dira helduen dantza txapelketak, eta "afizioa" dutelako jarraitzen dute horietan parte hartzen Amubietak eta Larrañagak. Amubietaren esanetan, txapelketetan parte hartu edo ez beraien esku dago; beraz, alde horretatik, ez dute "presiorik". Larrañagak erantsi du dantza "gustura" egiten saiatzen direla: "Badakigu lehiatzen



Bikotea dantzan, plazako kioskoan.

|||SEGURA|||||

Urriaren 20an izango da Seguran 2018ko Euskal Herriko Dantza Txapelketa, eta han izango dira Amubietak eta Larrañagak. Aurtengo denboraldian txapelketa batzuk irabazi ostean, "indartsu" sentitzen direla aitortu du Amubietak, eta "irabazteko aukerak" dituztela dio; "Euskal Herriko Txapelketa irabazteko borrokan sartzeko prest gaude". Hala ere, "edozer" gerta daitekeela uste du bikoteak.

Seguran badute esperientzia Amubietak eta Larrañagak, eta badakite sasoia eduki behar dela "ez nekatzeko". Taula gainean minutu gutxi egingo badituzte ere, fandangoa eta arin-arina ondo egin behar direla aitortu dute: "Amaierara arte, besoak eta hankak beren lekuan mantendu behar dira". Biak ala biak kirolariak dira umetatik, eta hori dantzarako lagungarria bazaie ere, "benetako sasoia" entseguetan lortzen dela aitortu du Amubietak.

Udan batera entseatzeko dute, baina urtean zehar banaka aritzen dira, Larrañaga kanpoan ari delako ikasten. Agian, Segurakoa baino lehenago itzuliko da etxera, "batera entseatzeko eta pauso jakin batzuk lantzeko".*

ari gabela, eta lehiakortasun horrek askotan tentsioa sortzen du. Baina disfrutatzen eta urduritasuna saihesten saiatzen gara". Gainera, parte hartzen duten txapelketek ez dute elkarrekin loturarik, eta beraz, txapelketaz txapelketa joan behar dela uste du Amubietak. Txapelketen egutegia kaleratzen denean, beren artean hitz egin eta zeinetan parte hartu nahi edo ahal duten erabakitzen dute. Lehia bakoitzak bere izen-ematea duenez, "pixkanaka" joaten dira adosten.

Txapelketetan plazak bete egiten badira ere, Amubietaren hitzetan, euskal dantzak "ez dira oso ezagunak eta ez zaie publizitate askorik" egiten. Hala ere, euskal kulturaren dantzak "garrantzia handia" duela uste du Larrañagak: "Txapelketetara joanda, tradizioa mantentzen dugula uste dut, eta hori gustatu egiten zaigu". Horrez gain, Azpeitiko bikoteak ingurukoen aitortza sentitzen du azkenaldian. "Hainbat txapelketa irabazi dugu, eta hedabideak gurekin harremanetan jartzen ari dira", aitortu du Larrañagak.

Bikoteak dantzarako duen gaitasuna agerikoa bada ere, Luis Alberdi Beltzaren lana goraiatu dute dantzariak. Izan ere, azpeitiarrek ez ezik, azkoitiarrek eta erreizildarrek ere osatzen dute haren dantza eskola. Larrañagak azaldu duenez, haur eta heldu asko elkartzen dira entseguetan, eta txapelketa askotan aritzen dira Azpeitiko, Azkoitiko eta Errezilgo dantzariak. Amubietaren esanetan, berriz, haien irakasleak egin duena "urteetako lana" da, eta horregatik dute orain herri horiek dantza munduan "hainbesteko indarra".*

Magia txisteratik herrira

Hirugarren urtez jarraian antolatu dute Txisteratik Egun Magikoa. Urriaren 6an, magoak kalez kale, karpapean zein Soreasu antzokian ariko dira beren ikuskizunekin ikusleak gozarazten. ✉ Mailo Oiarzabal

Urriarekin iritsiko da aurten ere Azpeitira Txisteratik Egun Magikoa. Aurreko bi urteetako harre-
ra bikainak hauspotuta, hirugarren edizioa prestatu dute Txisteratik taldean elkartzen diren herriko magiazaileek, Udalarekin eta Kulturaz kooperatibarekin batera.

Aurten ere hiru ataletan banatu dute egitaraua. Eguerdian hasiko da magia herrian barreiatzen; 12:30etik aurrera, kalez kale eta tabernaz taberna ibiliko dira magoak Alde Zaharrean, herritarrentzat eta herritarrekin trukoak egiten.

Perez Arregi plazan, berriz, western filmetako saloon itxuran atondutako karpa magikoan, Tor eta Txoborro magoek 30 minutuko ikuskizunak eskainiko dituzte, bost saiotan: 13:00etan, 13:30ean, 17:00etan, 17:30ean eta 18:00etan. Hiru euro ordaindu beharko da sarrera.

Gala nagusia

Eta lehen bi edizioetan egin bezala, Soreasu antzokian borobilduko dute aurtengoan ere Txisteratik Egun Magikoa, gala nagusiarekin. 19:00etan hasiko da egune-
neko azken ikuskizuna, luzeena eta mamitsuena.

Imanol Ituiño magoak aurkeztuko du aurten ere Soreasuko

||| DATUAK |||||

||| Zer. Txisteratik Egun Magikoa. ||| Eguna. Urriak 6 (zapatua). ||| Ordua. Eguerditik iluntzera ||| Tokia. Kalean eta Soreasan. ||| Antolatzaileak. Udala, Kulturaz kooperatiba eta Txisteratik taldea.

||| SARRERAK SALGAI |||||

2 sarrera mota. Sanagustinen eta *kulturaz.eus* webgunean eros daitezke sarrerak, bai karpako ikuskizunarenak, bai galarenak; azken horiek, sei eurotan umeenak eta hamar eurotan helduenak. ✪



Imanol Ituiño magoa, iaz, Sanagustinpean. ||| Julene Frantzesena

magia jaialdia. Harekin batera, magia komikoa egiten duen Los Taps bikotea, Asier Kidam, Gonzalo Albiñana eta Lautaro dira hirugarren edizio honetan Soreasuko oholtzara igiko diren artistak.

“Denetarik ikusteko aukera izango dugu, umorez txundituko gaituzten ikuskizunekin”, aurreratu dute antolatzaileek Soreasuko gala nagusiaz. ✪

||| BESTERIK |||||

1 The Posies, Azpeitian

30 urte bete ditu Bellinghamen (AEB) sortutako taldeak, rock alternatiboaren eta grunge mugimenduaren ikurretako bat izana. Urteurren borobil hori ospatzeko biran dabilza, eta Azpeitia izango dute galekuetako bat.

||| Eguna. Urriak 7 (igandea).

||| Ordua. 21:00 ||| Tokia.

Sanagustin kulturagunea.

||| Antolatzailea. Son Estrella Galicia.

2 Apustu etxeak hizpide

Apustu etheen gain sakontzeko bi hitzaldi antolatu dituzte, Igor Meltxorrena izango da lehena..

||| Eguna. Urriak 17

(asteazkena). ||| Ordua. 19:00

||| Tokia. Sanagustin.

||| Antolatzailea. Elkar-ekin.

3 Erdikaleko gaztetxea

Egun osoko egitarauarekin gogoratuko dute Erdikaleko gaztetxea itxi zuteneko 25. urteurrena.

||| Eguna. Urriak 13 (zapatua).

||| Antolatzailea. Gaztetxea. ✪

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foro Ibilbidea, 3 • Tel: 609 648 193
20720 AZPEITIA (Gipuzkoa)

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS
Jose de Arce, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Bibi Ondo, 28
Tel. 943-851445
AZKOITIA

Xabier margoak
Pinturak eta Parket Laminatuak
Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

KAÏOA

Kostaldeko haizeak


Zabaldu berri dugu Kaioa arropa denda Azpeitian, eta poz-pozik gaude herriko jendeak saltokiari egin dion harrerarekin. Zarautzen, Orion eta Zumaian zegoen orain arte Kaioa, eta maiatzaz geroztik, Azpeitiko Foru Ibilbidean ere bai. Hasieratik maitemindu ginen lokalarekin; lehen, Lazkano mertzeria zegoen bertan, eta gure funtsa mantenduz berritu dugu gunea. Emaiza oso eroso da.

Hilero-hilero aldatzen ditugu arropa bildumak, urtaroak aldatzen diren bezala. Hori bai, beti saiatzen gara estetika eta erosotasuna zaintzen. Askotariko aukera izan ohi dugu: arropaz gain, oinetakoak ere aurki daitezke gure dendan. Gure bildumak ez du adinik; gazteak eta ez hain gazteak ditugu atsegin, pertsonak gustatzen zaizkigu.

Gure hornitzaile gehienak europarrak dira, eta iparraldeko estetika atsegin dugu. Asko bidaiatzen dugu, beste leku batzuen eraginak jaso eta gero horiek gure herrietara ekarri nahi ditugulako. Gainera, garrantzia handia ematen diogu ingurumena zaintzeari.



HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | |
|--|----------------------|----------------|----------------------|--------------|--------------------------|
|  | Izena | Emakume-zaleak | Beasaingo herritar | Huts | Hogei errealeko txanpona |
| | Gizaseme | Zaborra | Harrapa ezan! | Kontsonantea | |
| | Oso-oso txikia | | | Zilarra | |
| | Afrikako belarjaleak | | | Urania | |
| Antilletako estatua | EH-ko egunkaria | | Su | | |
| Pagatzera behartua | Deitura | | Bokal mehea | | |
| | | | | Estrontzioa | |
| | | | | Oinei eragin | |
| Inudea | | | 2 | | 50 |
| Arrantza tresna | | | Ez eme | | Jainko egiptoarra |
| | | Metalezko hari | | | |
| | | Iratzea, garoa | | | |
| 1.151 | | | 18:30ak, sei eta ... | | |
| Laita du lanabes | | | 1 | | |
| | | | | Galderetan | Bokal biribila |
| | | | | Bokala | Potasioa |
| Gorotza | | | Zelatan | | |

 **Egilea: Luma**

* Argazkilaria azpeitiarra

SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | 2 | 1 | | | 5 | |
| | 3 | 5 | | | 9 | | 8 |
| | | | 7 | 5 | | | |
| 6 | | 8 | | | | | 5 |
| | | 7 | | | | 1 | |
| 4 | | | | | | 8 | 9 |
| | | | | 9 | 3 | | |
| 3 | | | 4 | | | 5 | 7 |
| | 6 | | | | 7 | 3 | 2 |



Partigiano
DENDA BERRIA
SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

||| ELKARRIZKETA ||||| Beni Odriozola Xoxoteko aterpezaina

“xoxoteko aterpea egundoko aukera izan da niretzat”

||| Aurreko aterpezainek uztea erabakita, apirilean jarri zuen Lagun Onak Mendi Bazkunak Xoxoteko aterpea kudeatzeko deialdia martxan. Beni Odriozola (Azkoitia, 1968) aukeratu zuten zeregin horretarako, eta irail hasieratik ari da egiteko horretan. Esperientziarik ez zaio falta Odriozolari.

Nolatan aurkeztu zinen Xoxoteko aterpezain izateko?

Txikitatik izan dut Xoxoterako joera. 10 urte nituenetik, askotan joaten nintzen, aitarekin. Oso inguru polita da, toki kuttuna dut, eta aterpea hartzeko aukera sortzean, ez nuen bi aldiz pentsatu. Lintzan 21 urte egin eta gero, etxera bueltatzeko gogo pixkat baten; Xoxotekoa egundoko aukera izan da niretzat. Ilusio handiarekin hartuko dut, gustura eta sentimendu goxo batekin.

Mendizaletasuna umetatik datorkizu. Eta aterpezain izatekoa?

Aitak sartu zidan mendizaletasunaren harra. Hasieran, nire asmoa zen mendian ibiltzea, ahalik eta mendi gehien igotzea. Niretzat, gauza bakarrak gairitzen du



Odriozola Xoxoteko aterpean. |||Uztarria

mendi gailurrak igotzea, eta hori da mendizaletazuna zaintzea eta aterpe bat eramatea, mendian bertan bizitzea. Mendia nire bizimodua da, neure burua ez dut beste inon ikusten. Xoxoteko aterpearen ardura hartzeko deialdia ikusi nuenean, aukera hoberik ezingo nuela topatu pentsatu nuen.

Zer asmo dituzu Xoxoterako?

Lintzan hogeitau urte hauetan eskuratutako esperientzia eta jarritako pasio hori Xoxoteko aterpean islatzea da nire helburua. Euskal Herriko aterpetxeen artean, puntan, jarri nahiko nuke Xoxotekoa, hemengo mendizaleentzat erre-

ferentzia bat izatea. Umeekin lan egiteko asmoa daukat, denetarikoa tailerrak antolatuz. Eta ez umeentzako bakarrik. Helburu nagusia, hala ere, aterpera etortzen den mendizalea oroitzapen onenarekin joatea da.

Lintzan urte asko daramatzazu lanean. Zer alde dago aterpe baten eta bestearen artean?

Xoxote mendiarekin harremanetan hasteko toki egokia da. Lintza beste era bateko aterpea da, inguruan mendi zailagoak ditu, mendian zailduagoa dagoen jende gehiago inguratzen da.*

||| Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

||| EFEMERIDEAK |||||

2008

Karidadeko mojen agurra. Karidadeko mojek herria utzi zuten, 139 urteren ondoren.

1931

Euskal izenak. Herriko kale, enparantza eta herri eraikin guztiei euskarazko deiturak jartzea erabaki zuten, eta horretarako Olaizola eta Otamendi zinegotziak izendatu zituzten.

1873

Erregea. Carlos VII.a Espainiako erregea Loiolan izan zen.

1734

Lehortea. Frutarentzat kaltegarria zen lehortea handia izanik, baserriarren eskariz hiru eguneko errogatiba egitea erabaki zuten. Prozesioak egin zituzten Sokorruko Andre Mariaren irudiarekin.

📌 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.* Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

KIMU BAT GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun iletsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA

Erronka berri bat

Oporrak bukatu dira eta jende askori sortzen zaio pisuaren kezka. Urte osoan elikadura ohitura egokiak dituztenentzat pisua ez da kezka izaten, gizendu ez direlako edota pisu pixkat hartu badute ere, berehala beren ohituretara bueltatuko direlako; hau da, ez dute ezer berezirik egin beharko lehengo pisura iristeko.

Baina urte osoan ohitura onak ez dituztenek eta garai honetan pisua hartu dutenek badute kezka izateko arrazoia; aste batzuk hartu beharrean, hila-beteak daramatzatelako oporretan. Eta hori bai dela larria!

Nire esperientzia umiletik, zenbait aholku ematera ausartuko naiz: helburua ez da "dieta egitea", egun batean bukatuko den dietarik ez ezazu egin, zure ohiturak alda itzazu betirako; baskula baduzu, saihestu aldi oro pisatzeko ohitura; jarduera fisikoa egitea beharrezkoa da, guztiok dakizkigu bere onurak; prestatu aste hobeak eta txarragoak izateko; irteeran azkarrena izateak ez baitu axola, helmugara iristekak balio du.

Ohiturak hobetzeak denbora eta ahalegina eskatzen ditu, baina benetan merezi duen erronka da, osasunerako inbertsioa.

Ez duzu ezer galtzen saiatzeagatik, zure osasunak eskertuko dizu!*



aitziber aizpuru

EUSEBIO BELOKI burdindegiko langilea



1. Gehien zer saltzen da?

Giltzak, zartaginak, xehatzeko gailuak...

2. Zer aurki daiteke burdindegian?

Etixerako edozer gauza.

3. Ohiko bezeroa?

Etxeoandreak eta gazteak.

4. Internet arerioa al duzue?

Ez, guk ere *on line* egon behar dugu.

5. Zer dago modan?

Koadroak itsasteko belkroa.

6. Burdindegian, zenbat plastiko?

Asko, baina beira indartsu dator.

7. Azpeitiarrak abilak al dira konponketetan?

Hala dirudi.

8. Giltza asko galtzen al dute azpeitiarrek?

Ikaragarri.

Julene Frantzesena

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrietan:
943 15 16 40

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arena, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

IRENE ALTUNA
LOIAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

Alar
merzeria

Loiolako izazio Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

ORDULARI

Jose de Arce, 10
Tel. 943 81 02 44
20730 AZPEITIA

uba

Enkalkulazioa
Finantza
Lekarate
Sotzialak

Gestio lanak
Finan administrazioak
Gestio Inmobiliaria

Tel. 943 151 424 Fax: 943 152 324
Euzkoan, 42 • 20730 AZPEITIA

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribide, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfnua.: 943 81 00 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi ARTE ETA DISEINU ESKOLA ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arce kalea, 3
943 81 25 08
artediseinu@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik



1. Mendirako joera handia dute Aranbarrik eta etxeok. Irudian, Lakartxela mendia igotzen, Izabara egindako irteera batean.

2. 1980an, Azpeitiko aurreneko Txikiteo Elegantean, lagunekin. Jaka urdin argiduna da Aranbarri, argazkiaren erdian.

3. Bardeetan, bizikletan.



Leitu eta ibili, etengabe

Liburuzain eta liburu zale, badu bestelako zaletasunik. “Bazterrak ikustea” du gogoko. 📌 Mailo Oiarzabal

Liburutegiko Beatriz” da azpeitiar askorentzat Beatriz Aranbarri (Azpeitia, 1963). 2002tik ari da liburuzain lanetan; Elgoibarko eta Legazpiko liburutegietan lan egin ondoren, dozena bat urte pasa daramatza Enparan dorretxeko Udal Liburutegian lanean.

Herriko Jesuitinen ikastetxean eta Institutuan ikasi ondoren, Gasteizen Geografia eta Historia ikasketak egin zituen Aranbarrik. Horiek bukatuta, Madrilerara joan zen, eta han hasi zen artxibategiekin eta liburutegiekin lotutako formazioa eskuratzen: “Hango Biblioteka Nazionalean artxiboen gaineko ikastaro bat ematen zuten. Arratsaldez ematen zuten, goizez beste ikastaro bat egiteko aprobetxatzen nuen, hango elkarte batek liburutegien gainean ematen zuena”. Beka batekin itzuli zen Madrildik Azpeitira, Udal Agiritegian lan egiteko. Ondoren, Lanbide Hastapeneko eskolan ere ibili zen, administrari lanetan. Hangoak bukatu eta langabezia gelditu zenean, artxiboen eta liburutegien gaineko ikastaro gehiago egiten jarraitu zuen, eta ikasitakoak praktikan jartzen ari da azken 16 urteotan.

Liburuekin eta liburu artean hezi zen Aran-

barri, eta liburuekin eta liburu artean lan egiten du, baina aurretik datorkio liburuekiko eta, bereziki, irakurtzeko zaletasuna. Zaletasunen zerrendan “lehenengoetakoa” du irakurtzea. “Etxean beti egon da irakurtzeko ohitura, aitzak ere asko irakurtzen zuen, eta beti eduki izan dut zaletasun hori. Beti gustatu izan zait irakurtzea, bai egunkariak –gaur egun gutxiago, hala ere–, bai liburuak. Eta ditudan ikasketekin ere, suposatzen da asko irakurri behar izan dudala”, azaldu du.

“Denbora pasatzeko” irakurtzea gustatzen zaiola dio, “eta burua despejatzeko, gehien bat”. Fikziozkoak dira gehien gustatzen zaizkion irakurgaiak, baina “erregistroa aldatzea” gustatzen zaio: “Batuetan izan daiteke nobela sozial bat, beste batzuetan historikoa, eta hurrengoan intrigazkoa. Saiakeraren bat ere bai, tartean. Lanekoak ere irakurri behar izaten ditugu, noski. Baina nire denbora librean, plazererako irakurtzen dut; eta fikzioa, nagusiki”.

Kirolzalea ere bada Aranbarri, kirola egin zalea, bereziki. Eta bi zaletasunak, irakurtzea eta gorputzari eragitea, bateratzen ere asmatzen du: “Bizikleta estatikoan ari naizen bitartean irakurtzen dut asko, igerilekuan. ‘Zuk



Beatriz Aranbarri, Azpeitiko Udal Liburutegian. |||||Mailo Oiarzabal

daukazu abildadea!', esaten didate bizikletari eraginez irakurtzen dudalako; baina, bestela ezean, aspertu egiten naiz! Gehienak hango pantailei begira aritzen dira, futbola-eta ikusten, baina niri ez zait batere gustatzen telebistan kirola ikustea; kirola egitea bai, baina ikusten egotea ez. Telefonoa edo e-booka hartu eta irakurri egiten dut, lasai-lasai, izerdi pixka bat ateratzen dudan bitartean".

Autokarabanarekin

"Kirol dezente" egiten duela dio Aranbarrik. Garai batean lasterka ere aritzen zen, baina belauna arazoak ematen hasi zitzaionetik "badaezpada, oinez". Bidaiazea eta "bazerak ikustea" ere asko gustatzen zaio, gertuko parajeak zein urrutikoak ezagutzea. "Txikitán, gurasoekin asko mugitzen ginen, kanpinan ere ibiltzen ginen, eta gero neu ere bai

neure familiarekin. Umeak jaio arte, asteburuetan Pirinioetara joaten ginen sarri, beti ibili izan gara asko mendian. Alabak jaio zirenean, berriz, autokarabanista bihurtu ginen; aurrenarekin furgonetazale, eta bigarrena jaio zenean, autokarabanara pasatu ginen. Orain ere horrela bidaiazen dugu. Europan asko ibili gara", kontatu du.

Hemen ere "denbora gutxian" autokarabanentzako gune asko prestatu dituzten arren, beste toki batzuetan aurkitu dituzten erosotasunetik eta zerbitzuetatik urrun gaudela iruditzen zaio. Autokarabanan mugitzeko, "Frantzia marabilla bat" dela dio. "Mediterraneo aldera, aldiz, ez gara joaten; ikusterik ere ez dut nahi. Kontrako jarrera antzematen da, eta kanpinetan sartzea nahi izaten dute". Aranbarrik, aldiz, autokarabanentzako guneen erabilera aldarrikatzen du, behar bezalako

baldintzekin. "Gu, behintzat, saiatzen gara beti horrelako guneetan geratzen. Gertatzen dena da bakoitza garen bezalakoak garella eta batzuk edozein tokitan jartzen direla, trasteak kanpora aterata, eta hori ere ez da kontua". Europan autokarabanen erabilera hemen baino askoz aratuagoa dagoela kontatu du, eta Norvegia "paradisua" dela kontatu diote berari. "Ez naiz haraino ailegatu, ea jubilatzen garenean iristen garen".

Autokarabanen inguruko kontuekin bezala, ezin izaten du saihestu Aranbarrik batean eta bestean ikusten dituen liburutegi libreen itxuraz eta egoeraz alderaketak egitea. Udan Frantziako Perygorden edo Hendaian ikusi dituenekin liluratuta, Azpeitikoak antzera zainduta ikustea gustatuko litzaioke, baina... "Errespetuak, besteekiko begiruneak, askotan huts egiten digula iruditzen" zaio.✘

IKA Instalakuntza Elektrikoak
argi lanak s.l.

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargi@iakanak@gmail.com www.ikanestemak.com
20730 AZPEITIA

Corp autoak lehar dino...
FX AIZPURU AUTOAK
PREMIATU EGONEN

Tel: 943 81 23 69 aizpuru@aizpuru.net Arreba 17, 20730 AZPEITIA
Fax: 943 81 22 81 www.aizpuru.net

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

| | |
|----------------------|----------|
| Udaletxea | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak | 112 |
| Azpeitia Lantzen | 15 71 83 |
| Iraurgi Berritzen | 026069 |
| Nekazal Bulegoa | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka | 15 05 16 |
| Gaztelekua / GIB | 15 71 61 |
| Lanbide | 15 04 02 |
| Kiroldegia | 81 30 69 |
| KIUB | 15 72 01 |

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 26an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

| | | | |
|---------------------|----------|--------------------|--------------|
| Igerilekua | 81 41 21 | EAJ | 81 55 70 |
| Emakumeen Txokoa | 15 70 55 | Sortu | 15 72 00 |
| Ertzaintza-Azkoitia | 0837 80 | EA | 81 00 11 |
| Baigera I | 81 51 71 | Aralar | 647 42 59 95 |
| Baigera II | 81 23 89 | | |
| Epaitegia | 0251 91 | SINDIKATUAK | |
| Ekoetxea | 81 24 48 | ELA | 81 34 46 |
| | | LAB | 15 13 56 |
| | | EHNE | 81 39 28 |

OSASUNA

| | | | |
|------------------------|----------|------------------------|--------------|
| Anbulatorioa | 0254 00 | | |
| Anbulator. larrialdiak | 0254 01 | KULTURA-EUSKARA | |
| Eguneko zentroa | 15 74 96 | Sanagustin | 10 52 20 |
| Asepeyo | 8144 00 | Kultur Mahaia | 674 16 56 84 |
| Gurutze Gorria | 85 32 97 | Euskara Patronatua | 81 45 18 |
| DYA-Donostia | 46 46 22 | Natul euskara taldea | 661 10 44 46 |

KOMUNIKABIDEAK

| | | | |
|---------------------------|--------------|----------------------|--------------|
| Uztarria | 15 03 58 | Udal Euskaltegia | 81 19 47 |
| Hitza (Azpeitia) | 81 38 41 | Udal Liburutegia | 15 71 95 |
| Hitza (Zarautz) | 8900 17 | Loiolako Liburutegia | 8165 08 |
| Azpeitian Zer? | 080688 | Kontseilua | 943 59 12 00 |
| Erlo Telebista (Azpeitia) | 81 53 35 | Bai Euskarari | 902 43 00 26 |
| Berria | 943 30 40 30 | IKASTETXEAK | |
| Gara | 943 31 69 99 | Iraurgi (Betharram) | 81 16 68 |
| Noticias (berriemaileak) | 687 60 50 06 | Iraurgi (Milagrosa) | 8163 80 |
| DV (berriemaileak) | 610 81 29 12 | Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Argia | 943 37 15 45 | Ikasberri | 15 12 46 |
| Arrate Irratia | 943 12 01 73 | Karmelo Etxegarai | 81 26 97 |
| Euskadi Irratia | 943 01 23 00 | Urola BHI | 15 02 28 |
| ETB | 943 01 17 05 | Uztaro | 81 31 90 |

BESTERIK

| | | |
|--------------------|------------------|--------------|
| ALDERDI POLITIKOAK | Xoxoteko aterpea | 58 10 07 |
| Bildu | Eregi | 943 08 06 88 |

FARMAZIAK (URRIA)

1-4-9-18-24
Beristain (Azpeitia).
943811949

2-6-7-11-16-25-31
Alberdi (Azpeitia).
943815974

8-15-20-21-22-29
Aranburu (Azpeitia).
943811350

12-13-14-26-30
Arrieta (Azpeitia).
943811274

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ BIZIKLETAK UZTEKO.

Abuztuan zehar, bizikletak aparkatzeko guneak egokitu zituen Udalak herriko hainbat gunetan. Besteak beste, Perez Arregi plazatzon jarri dute bizikletak uzteko tokia.

3-5-10-17-19-23-27-28
Jacome (Azpeitia).
943080258

GAUEZ, URTE OSOAN
Alberdi (Azpeitia).
943815974

GARRAIOA

| | |
|----------------|--------------|
| ALDALUR | 943 85 25 87 |
| EUSKO TREN | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA | 943 85 11 59 |
| PESA | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

ARANTZAZU ARANETA

Kopilotua

“sekulako adrenalina sortzen du rallyetan ateratzeak”

Jokin Agirre bikotekidea ondoan duela parte hartzen du rallyetan. Urte askoan horretan jarraitu nahi du. 📎 **Ihintza Elustondo**

Nolatan hasi zinen rallyetan parte hartzen?

Etxean afizio handia dago, aita rallyak antolatzen-eta ibiltzen da, eta txikitatik gustatzen zaizkit autoak. 2013an, Jokinen lagun batek lasterketarako autoa utziko zigula esan zigun, baina baldintza batekin: ni Jokinen alboan ateratzea. Ez nintzela ausartuko pentsatzen zuten, baina atera egin ginen.

Zer sentitu zenuen lehen aldi hartan? Sekulako adrenalina; hori sortzen du rallyetan ateratzeak. Arriskuarekin jolasten dugu, eta muga ibiltze hori gustatzen zait. Probatuz gero denoi gustatuko litzaiguke.

Beldurrik ez al duzu sentitzen?

Ez, segurtasun neurri handiak hartzen dira eta. Urte batean autoa irauli zitzaigun, eta Jokinek ez zuen minik hartu; nik, berriz, lepoan izan nuen min pixka bat. Ondo babestuta jotaten gara, eta, horregatik, autoari zerbait gertatzea izaten da gure beldurrik handiena.

Zer autorekin ateratzen zarete?

BMW M3 batekin. Maitasun berezia diogu; gure txikia da, ume bat bezala.

Zein da kopilotu baten zeregina?

Gidariaren begiak eta belarriak izatea. Biek konfiantza handia izan behar dute elkarrengan; gu, bikote izanda, ondo ulertzen gara.

Ez al duzue inoiz pentsatu gidariak eta kopilotuak truk egitea?

Gustatuko litzaidake, baina ez dakit presioa aguantatuko ote nukeen; izan ere, jendeak asko kritikatzten du gidariak egiten duena. Dena den, nahiko nuke emakume kopilotu bat ondoan dudala ateratzea. Jokinekin ere gustatuko litzaidake, baina ilusioa egingo lidake emakumeen taldea osatzeak.

Ez da emakume asko ibiltzen mundu horretan, ezta?

Gero eta gehiago, baina, orokorrean, gizonak irteten dira. Uste dut afizio hau amatasunarekin uztartzea zaila dela, eta horregatik dagoela hain emakume gutxi.

Inoiz irabazi al duzue lasterketarik?

Ez, laugarren amaitu genuen behin. Euskal Herrian maila handia dago, eta zaila da irabaztea.

Ez al da afizio garestia?

Oso. Baina ematen didan guztiarekin, uste dut merezi duela gastatzen dugunak.*



1. Jokin Agirre eta Arantzazu Araneta, rally batean. 2. Bikotea lehen aldiz rallyan atera zen egunean. 3. Araneta txikitik moto batekin jolasean; afizioa txikitatik datorkion seinale.



Nobela baten hasiera, adibidez

Guatemala hiritik San Cristobalerat bidean 150 kilometro eginik heldu da Helena Tiucalerat. Herri itxura du, udalerriko herririk handiena da, bederen. "3.546 arima" iragartzen du herriaren izenaren ondoan ageri den zenbakiak. Ederra iritzi dio Tamazulapa zubiari. Helenak ez zuen espero gisako obra zibilik munduko bazter honetan. Guziz ohiturik da alde guzietan New York ikusten, batzuk eta berteak Manhattan, Brooklyn edo Empire State etxeak balituzte bezala hitzean eta hortzean ibiltzen. Guatemalan den aldiro jabetzen da munduaren neurriaz Helena.

Karrika nagusian orotarikoaren barnean daramatelarik, herria zer izaten ahal den ikusi du Helenak. Asfaltatua, errepidea. Lurra da bide bazterrean, ibilgailu bat hemen, bertze bat han, aparkatuak iduri. Bidearen alde bietan behar du zinezko herriak, arbola handien gerizan gordeak etxeak, gordea jendea... Karrika nagusia ez da, finean, hiriburua eta San Cristobal lotzen dituen errepide Amerika artekoa bertzerik.

Kontaktuaren etxerat doazelarik, Helenak gasolindegi ttarra ikusi du, janari denda bat han, kantinak ezker-eskuin, bihi saltokia, udal etxea, eskola. elizak –ebanjelikoa, batetik, eta katolikoa, bertzetik, bereizi ditu leiho beira-ilunetatik–, "Tiucal, Komunitate Bulegoa" leitu ahal izan du... Trafiko handirik ez, lau gurpilekiko ibilgailuak bezainbat bikoak.

Nahiz Tiucal duen izena –Teotlkal, "Jainkoaren etxea"–, Helenak pentsatu du bere zibilizazioan bertzela idurikatzen ahal dutela jainkoaren etxe zerua.

Aldiz, inola ere ez dutela idurikatzen ahal beren kontaktu Amerikaren bizitegia, are gutiago etxe barnea.

Amerika

Azal-beltzarana da Amerika, guatemalarra ez bezalako beltza. Beltzak ez bertzek duen zuri-tasuna darama hortz handietan morroi buru-



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Karrika nagusian orotarikoaren barnean daramatelarik, herria zer izaten ahal den ikusi du

soilak. Soinean nikia jantzia, galtza belaunetik beherainoko motzak, sakela lasaietan kargamendua garraio. Kiroletako higatueta sartuak ditu oinak. Amerika jaiki egin da Helena sartu delarik, bizkartzainak atarian auto barnean utziak.

–Hello, Amerika? Zer gisa? -Helenak.

–Ongi, eta zu? -Amerikak, adeitsu, ez muxu ez bortzeko, hortz zurien distira ageri beti.

–Erran behar didazu zer egiten ahal duen kubatarrak Guatemalako herri ttar honetan! Usteko nuen irlan nahi duela beti han jaiok -irribarre eskainiz ekin dio solasari Helenak, parean duen gizonkilaren bihotza ez baina konplizitatea irabazi nahirik; asmotan, bederen. Solaskidearekiko enpatiarene goiti-beheiti nahitaezkoak. Inork inoiz ikasiko ez dituenak, baina ikasiak balitu jokatu beharrean Helena. Sei botilatxo ageri dituen kartoia eskaini dio-. Garagardoa ekarri dizut On Jaimeren partetik. "Eta goraintzi!", erran dit...

–"On Jaime" da orai? -aspaldixkoko lagunaren gomutan-, bertzerik gabe Jaime zen sasoi batean...*



TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com



no+vello®

KE

BIHURTU ZAITEZ *eta zalog zure burua zaintzera*

Egin ezazu ihes egunero errepikatu beharreko egoeretatik, eta aurki ezazu zeure burua zaintzeko une hori, no+vello etxean

30€

guna/saioko

- FOTODEPILAZIOA
- FOTOGAZTETZEA
- AURPEGIKO GARBIKETAK

%10eko deskontua izango du iragarki hau aurkezten duenak.
*Solik bezero berrak sco gune berrak

AZPEITIA - Ildefonso Gurrutxaga, 8 - 943 04 44 22
EIBAR - Ego gain, 18 - 943 53 88 05



Pancafit®

Metodo Raggi®

Aurreneko klasea probatzeko
Hilabetean 38€

Azteazkena: **10:00 - 11:00 / 16:25 - 20:15**
Osteguna: **11:00 - 12:05 / 15:15 - 16:20**
Ostirala: **15:15**

Iñaki Azoiazu Kalea, 5 • rusku2@msn.com • 666 190 653
luzafit.com



Emaiozu zure
gorputzari
merezi duen
askatasuna